

# TERESAR ESKOLA FUNDAZIOKO IKASTETXEEN ERAKUNDE HEZKUNTZA EGITASMOA





**TERESAR ESKOLA FUNDAZIOKO  
IKASTETXEEN ERAKUNDE  
HEZKUNTZA EGITASMOA**

## AURKIBIDEA

### SARRERA AURKEZPENA

## 1. IKUSPEGIA, EGITEKOA ETA BALIOAK

### 👤 IKUSPEGIA

Pertsonaren neurrira egindako eskola .....	14
Eskola enpatikoa: bestearen begirada zurea bedi .....	15
Orohartzailea izaera eta berdintasuna oinarri dituen eskola .....	16
Eskola irekia .....	16
Etorkizun sena duen eta elkarkonektatua dagoen eskola .....	18
Aldaketa diseinatzailea den eskola .....	19

### 👤 EGITEKOA

Bestea hezi gure burua hezteko .....	22
Harreman-pertsonak .....	23
Gizarte eraldatzaileak .....	24
Lidergo espiritual .....	26
Aldatzen lehenak izan .....	27
Sormen eskola .....	28

### 👤 BALIOAK

Buru irekia .....	32
Ekintza zaleak eta konprometituak .....	33
Ausart eta gogotsu .....	34
Hazkuntza espiritual eta intelektual etengabea .....	35
Gertutasuna .....	36

## 2. TESTUINGURUAK

### 👤 BESTELAKO IKASLE BELAUNALDIA

Besteei jarraiki .....	40
Hunkiberak eta sentiberak .....	41

Ekintza zaleak .....	42
Ongizate gizarteko partaide .....	43
Elkar konektatuak. Mundua da ikasgela .....	44
Zeregin anitzetarako adimenak .....	45

### 👤 IKASKETA EREDUAK

Adimen anizkuna eta espiritual .....	48
Ikasten diharduten komunitatea .....	50
Ikaslearen neurrira .....	52
Pentsatze-kultura .....	54
Sormen kultura .....	56
Ikasketa eta zerbitzua, ekintzaileak eta Design for change (aldaketarako diseinatu) .....	58

### 👤 IKASTETXEKO LANGILEGOA

Pertsonak .....	62
Inplikazioa .....	62
Heziketa pastoral-espirituala .....	63
Pedagogia aldaketa eta eguneratzeaz arduratuta .....	64
Denbora kudeaketa .....	66
Teknologia tresnak .....	67

### 👤 SENDIAK

Gurasoak, eragile ekintzazaleak eskolan .....	70
Entzun eta adostu .....	71
Erantzukizun elkarbanatua eta autonomia .....	72
Belaunaldi tartea .....	73
Denbora kalitatea .....	74
Gurasoen heziketa .....	76

## 3. ESTRATEGIA LERROAK

Pedagogia Lerroa .....	80
Lidergo Lerroa .....	84
Pastoraltza Lerroa .....	88

## SARRERA

Gure mundu globalaren erronkarik handienetakoa hezkuntza da: hezkuntza denentzat eta giza-banakoa bere osotasunean, dimentsio guztietan begietsiko duena. Teresar Eskola Fundazioak Erakundearen Hezkuntza Egitasmoa gauzatuz erreferentzia esparru bat utzi nahi die eskuartean Hezkuntza Komunitateei: gure heziketa tradizioan zein teresar nortasunean oinarrituta, XXI. gizaldian Elizan eta gizartean antzematen ditugun deiarrei erantzuna emateko.

Frantzisko Aita Santuak, 2014ko maiatzaren 10an hezitzaileekin izandako Topaketan, honako hau esan zuen: **eskolan jakintza -edukiak- ikasteaz gain ohiturak eta bizitza balioak ikasten ditugu. Gauza asko, hots, garrantzitsua den eduki asko jakiteko ongi hezten gaituzte, baita ohitura onak nahiz balioak gure egin ditzagun ere. Eta diodanak berebiziko garrantzia du. Zuei guztioi, guraso, irakasle, eskolan lanean zabilatzateno eta ikasleoi, ikasbide zoragarria opa dizuet eskolan. Adinez nagusi denak erabiltzen jakin behar dituen hiru hizkerak bereganatzeko ikasbidea: adimenaren mintzaira, bihotzaren hizkera eta eskuaren hizkera. Hirurak harmoniaz erabiliz, alafede. Esan nahi baitut: pentsatu dezagun, sentitu eta egindakoa; gogoz sentitu, pentsatu eta egindakoa; eta gogoz egin, pentsatu eta sentitutakoa. Hiru hizkerak batera, harmoniaz.**

Enric d´Ossó santuak, Pedagogia Idazkietan, bizitza gaur eta orain bizitzeko gakoa eskaini zigun, gogoratzeko baliagarria: **bat egin dezagun denok sentipen eta esanetan, ahal dugun heinean; bat etor gaitezen irakaskuntzan, irakaspenetan eta gainerakoan. Heziketa egitasmoan ere batasuna bedi. Denek har bezate parte egitasmoaren eraketan.**

Hau honela, hizkera berri batean jardun nahi dugu: hezkuntza-erabakietan pertsona ardatz harturik berezko dituen dimentsio guztietan aintzatetsi nahi dugu. Aldi berean, amesten dugun eskola teresarraren -lekuan lekukoa den eskola eta lekuan lekuko ezaugarriekin- ardura gure gain hartu nahi dugu, guk denok osatzen baitugu Hezkuntza Komunitatea.

Agiri hau lagun ugarik elkarrekin egindako lanaren emaitza da: Hezkuntza Komunitateek, Erakundearen Hezkuntza Egitasmoa batzordeak, Jabego Taldeak eta Patronatuak egin dute lan. Denoi bihoakizue nire eskerrona agiri honetan bildutako gogoeta, etorkizun-sen eta proposamenengatik. Horiek guztiek osatzen dute gaur jarraibide gisa aurkeztu zaigun ibilbidea.

**M<sup>a</sup> Sales Vázquez**

Teresar Eskola Fundazioaren Patronatu-lehendakaria

## AURKEZPENA

Teresar Eskola Fundazioaren baitan dauden ikastetxeen Erakundearen Hezkuntza Egitasmoaren (EHE) aurkezpena daukazu eskutan. Fundazioa 2009ko abenduaren 23an sortu zuen Jesusen Teresa Lagundiak eta hezkuntza du helburu. Hezkuntzak Ebanjelioaren izpiritua du iturri, Eliza Katolikoaren irakaspenetan oinarritua dago eta Enric d'Ossó santuaren teresar karisman finkatua, zeina erakunde sortzailearen Berezko Izaeran adierazia dagoen.

Gure ikastetxeek hezkuntza egitasmoa elkarrekin landu duten lehen aldia da. Garaiotan gizarte aldaketa erraldoiak ditugu gainean, ebanjelizatze erronka berriak eta askotan aukerak direla ikustea kostatzen zaizkigun egoerak. Hauei guztiei nola aurre egin ikuspegi bateratua jorratzen hasiak dira ikastetxeak honela eta egin beharreko hautu estrategikoak zehazten.

Gure ikastetxeetan testuinguru ezberdinek dute leku eta horretaz jabetu nahi dugu: ikasle belaunaldi berriak, hezitzaile taldeak eta ikastetxeetako langilegoa, zuzendaritza taldeak, sendiak eta beste.

Gurea EHEak amesten dugun eskola hobeto ulertzen lagunduko digu, baita besteen beharrak eta sentikortasuna gure egiten eta norbanakoaren irrikak aseko dituen ikasketa-lerroak eskaintzen ere. Datuzen urteetan pedagogia, pastoral eta lidergo arloetan jarraitu beharreko estrategia-lerroak idatzita dartzatza. Horregatik garatu beharreko ekintza nahiz irizpide finkatzaileak hiru ataletan mailakatu ditugu, zailtasunaren eta denbora-epearen arabera, hurrenez hurren -labur, ertain zein luzea- .

Erakundearen Hezkuntza Egitasmoa osatzean, bi esparru hartu ditugu kontuan: Teresar Hezkuntza Proposamena eta Teresar Eskolaren Nortasun Agiria (Berezko Izaera). Beti ikasten ari den elkarte gara, parte-hartzailea den, metodologia horizontala erabiltzen duen eta bere baitan erakundeko kide diren talde eta pertsona guztien aberastasuna duena.

Agiri honek gure ikastetxeetan arau izaera du, loteslea da eta ofiziala. Bertan datoz denentzako diren arauak, modu sintetikoan aurkeztuak eta ezinbestekoa dena bakarrik. Honek sormena eta burujabetasuna bultzatuko du gure ikastetxeetan, hala nola, bai ikasle, bai irakasleengan ere, Erakunde Hezkuntza Egitasmoaren eremuan.

# 1/ IKUSPEGIA, EGITEKOA ETA BALIOAK



## IKUSPEGIA

Gure erakundeak etorkizunari begira zein ikuspegi landu nahi duen azalduko dugu atal honetan: zer lortu nahi duen Teresar Eskolan eta zein eratan taxutu nahi duen ebanjelizatze misioa datozen urteotan.

Eskolan lehentasun ditugun sei gakoak honakoak dira:

- Pertsonaren neurrira egina
- Enpatikoa: besteen begirada zurea bedi
- Orohartzaileria eta berdintasuna du oinarri
- Irekia
- Etorkizun sena du eta elkarkonektatua dago
- Aldaketa diseinatzailea



## PERTSONAREN NEURRIRA EGINDAKO ESKOLA

Balizkoa den beste mundu bat gauzatzearren bere apurra jarri nahiko luke Teresar Eskolak. Nola? Norbanakoaren gaitasunean, aukeretan eta barne-aberastasunean sinetsiz. **Ez dut ezer aurkitzen arimaren edertasun gailurra eta ahalmen gorenarekin pareka dezakedanik<sup>1</sup>.**

Eliza katolikoaren ebanjelizatze misioan bere lekua du eskolak. Jesusen Teresa santuaren gizatasun eta kristautze prozesuan funtsezko izan ziren ezaugarriak dira gaur egun eskolaren hezkuntza ikuspuntuaren oinarri: pertsonaren duintasuna, norberaren ezagutza, barneko-tasuna, egia etengabe jarraitu, Jainkoarekin lagun batekin ariko bazina bezala aritu, askatasuna, gizadiarekin konprometitu eta elizan gogo-beroz parte hartu. Ezaugarri hauek dira Teresar eskolan pertsona haztea ahalbidertzen duten osagaiak, nahiz gizatasunean, nahiz kristau gisa. Horretarako pertsona bakoitza dagokion eran zainduko dugu, barne-aberastasu-na loratzeko bitartekoak jarriko, aniztasuna balioetsiko eta hartu-emanetan hazi eta gara dadila saiatuko.

Pertsona gailentzen da, pertsona dugu ardatz. Teresar eskolan honek zera esan nahi du: Jesus-ek sinetsi bezala sinesten dugula pertsonan, ikasteko duen betebeharrak gain gizatasunean aurrera egiteko ardura ere baduela, gizartearen onerako.

Bere ingurukoek eta gizarteak dituen beharrei irtenbidea aurkitzeko adimen sortzailea behar du pertsonak eta besteekin ongi moldatzeko

gaitasuna. Ikuspuntu hau du abiapuntu Teresar eskolak pertsona -gizon edo emakume- zer den ulertzean, Jesusen Teresa eta Enric d'Ossók egin bezala.

Teresa eta Enricen Jainkoa-Laguna zela bizitu zuten. Esperientzia hau da teresar eskolan barneko-tasuna lantzeko lortatzeko eta argi.

Antolakuntza eta kurrikulumari dagokionez, gure ikasle aniztasuna jomuga duten ekimenak burutu behar ditugu batetik eta bestetik, hezkuntza elkarteko kideek elkar ezagutu dezaten topaketak eta elkarlana bultzatu. Irakatsi eta hezi egingo duen eskola hezitzailea izan nahi dugu, hots, helburu akademikoak lortutakoan, pertsonarengan interesa, motibazioa eta ikas-ten ikasteko gogoia suspertu nahi dugu.

Pertsona bakoitza muinean nolakoa den antzemango duen lidergoaren eta ikasketa ereduen alde egiten dugu: ikasleak haien ikasketaren jabe izan daitezen metodologia eta baliabideak eskaintzen ditugu, haien adimen-anizkunak gara ditzaten, trebeak izan daitezen, zentzu biltzaileak, fededunak eta konprometituak gizar-terean nola elizan.

Teresar eskolak ikaslea-familia-eskola harremana azpimarratu nahi du, tutorearen esku-hartzea lehenetsiz (hezitzailea-ikaslea eta hezitzailea-familia harremana), hau baita eskolaren ustez teresar hezkuntzaren eremu pribilegiatua eta sorburua.

## ESKOLA ENPATIKOA: BESTEAREN BEGIRADA ZUREA BEDI

**"Berearekin sartu gurearekin ateratzeko"<sup>2</sup>**

Eguneroko kontuetan erreparatuz besteen errealitatea jaso nahi dugu eta gizabanakoak eta taldeak benetan zein dinamikek biziberritzen dituzten igarri -itxuraz hau edo hura izanagatik-; hezkuntza elkarteko kideok senide garelako aitortu nahi diogu elkarri, gainontzekoen irizpideak gureekin eramanez. Gure oskoletik atera behar dugu besteen duintasuna eta zilegitasuna bizi eta ulertzeko, guretzat bakarrik onuragarri diren kontuetatik atera eta bestea, ezberdina, den bezala onartzeko esku-zabaltasuna izan.

Bizitza kontaktak entzun bitartean ulerker eta enpatiko agertzeko emozio-giro egokia sortu nahi dugu. Arterkaritza gorpuztuko duen lidergoa nahi dugu, ezberdintasuna bere baitan onetsi eta elkarrizketa tresna edukita, denek elkarbanatuko duten ikuspuntua taxutuko duena.

Enpatia bihotzean heziko duten hezitzaileak eta gidatuko duten buruzagiak behar ditugu. Ikasketa ez baita jakintza pilatzea besterik, ikasi, pentsatu eta sortzeko behar den adimen-egitura eratzea ere bada. Ezagutza mota honen muina pertsona bakoitzak bere buruarekin duen lotura da; hau dela eta, gaitasun emozional, pertsonaren baitakoek eta sozialek berebiziko garrantzia dute.

Eskola teresarreko hezitzaileak ikaslearen lekuan jartzeko joera du: badaki zer dakusan, zer sentitzen duen, zerk bultzatzen duen aurrera eta zer den behar duena. Bestearen begirada zurea bedi esateraren bidez Enric d'Ossóren bihozkada laburbildu nahi dugu: gure hezkuntzaren benetako helburua lortzeko hurkoaren beharretan sakondu behar dugula.

Ikasleen larruazalean jarrita, errazagoa izango zaigu haiekin bat egitea, haien konfiantza eskuratzea eta helburu berdina izatea.

Ebanjelio begiradak senide garelako aitortzea ahalbidertzen digu, denok hezkuntza elkarteko kide garenez gainontzekoen irizpideak jasotzea eta ezberdintasunean aberastu nahiz hobetzeko aukera.

Haurren emozio-adimena ez dugu heziko haririk eta gu geu ez bagara emozio adimendun hezitzaileak. Hala behar du ere ikastetxeak, sistematikoki hezi behar du inteligentzia emozionala. Erakunde osoan hedatu eta islatu behar da emozioen kultura, heziketa hori emango bada: antolaketan, egituraketan, metodologian, eraikinean, estetikan eta eduki kurrrikular guztietan.

<sup>1</sup> Teresa Santua, I Bizilekuak 1,1

<sup>2</sup> Enric d'Ossó, Katekistaren Gida Praktikoa. I Liburukia 105. Orrialdea

## OROHARTZAILE IZAERA ETA BERDINTASUNA OINARRI DITUEN ESKOLA



Teresar eskolak datorren jende guztia onartzen du, bazterketarik egin gabe, dela generoa, arraza, hizkuntza, erlijioa, adina, egoera soziala... eskolan bertan gizartea baitu, **gizarte anitz, kultura artekoa, demokratikoa, orohartzzailea eta solidarioa**<sup>3</sup>.

Anitza den errealtate honek erronka ugari aurkezten dizkigu eta kontraesanetan murgiltzen. Erronkak onartu ahala kontraesanak datoz errenkan: harreman asimetrico, hierarkiko eta baztertzzaileak dira gureak. Sistema honetan gaude korapilatuak. Beste sistema bat proposatu nahiko genuke, ordea: berdin tasuna eta **elkarrekiko harremanak eratu**<sup>4</sup> nahiz denen parte hartze arduratsua bultzatuko duen egitura. Ez da denak molde bakarrean sartzen gaituen berdintasuna, eskubideetan pareko egin eta benetako aukeretan berdintzen gaituena baizik: ekintza hauta dezakegu eta ezberdintasunean gozatu. Teresar eskolan estereotipoetatik aldentzen diren harreman molde berriekin erlazionatu nahi dugu elkar gizon-emakumeok.

## ESKOLA IREKIA

Jesusen Teresa santua eta Enric d'Ossó santua pertsona irekiak ziren eta munduan txertatuak bizitu ziren. Teresa hara eta hona ibili zen, geldi ezin: bere garaiko sufrimenekin sufritu eta pozeekin gozatu zuen. Enric, bestealde, haurren, gazteen, eta bereziki emakumeen -gizartea eraldatzeko eragileak- heziketa zein garrantzitsua zen ezagutu zuen. Hark bezala, guk ere egunotan nola ebanjelizatu gogoetatu behar dugu, gure heziketa moldeari zentzua zerk emango dion finkatzeko.

Teresar eskola lekuan lekuko testuinguru soziokulturalean txertatua dago. Inguruan dagoe-

Orohartzzailea -inklusiboa- izateak pertsona den bezala balioestea dakar berekin, dagokion garapena burutzeko gaitasunean sinestea eta baita ekar dezakeen aberastasunean ere.

Hezitzaileok, gure lan-giroa solidarioa izango dela berretsi nahi dugu eta guk hartutako erabaki pastoral eta pedagogikoetan orohartzzailetasuna izango dugula zutabe: denek parte hartzeko egiturez baliatuz, pertsona orok dakarrena txertatuko dugu.

Inklusioan eta berdintasunean oinarritutako eskola sustatzeak pedagogia mota zehatz batzuen alde egitea esan nahi du: harreman-pedagogiak eta pedagogia kritikoa. Harreman-pedagogikoez ari garenean: lansareak eratu eta harremanak bultzatu, norberaren gaitasunak zabaltzen dituen prozesuak abiarazten ditugu. Pedagogia kritikoei buruz ari garenean: ezberdintasun sozialek sortzen dituzten hesiak gainditzeko hezkuntzaren boterean uste osoa dugu, eskola barruan bezainbat kanpoan.

nari ateak zabalik, besteekin topo egiteko tokia da. Gure asmoa antzeko egitasmoak dituzten talde eta erakundeen proiektu zein ekintzetan lankidetzan aritzea da, beti ere, gure gizartea plurala dela jakinik.

Gizarteko aldaketei erne bizi den eskolan amesten dugu: adimena zabalik du, bai munduan aurrera-atzera dabilzan joerak ulertzeko, bai une historikoetan ematen diren paradigma aldaketak kritikoki oniritzi eta onartzeko. Eta eman litezkeen gizarte aldaketak Ebanjelioaren norabide-lemapean hausnartuko ditu.



<sup>3</sup> THE Gidalerro Nagusia 3

<sup>4</sup> Ikus, THE Egoera Eremua. Genero eta bazterketa heziketa

## ETORKIZUN SENA DUEN ETA ELKARKONEKTATUA DAGOEN ESKOLA

Autonomia pertsonala, gogoeta, komunikazioa eta sormena, etorkizunean gizartea eraikitzeke ezinbestekoak izango diren tresnak direla iruditzen zaigu Teresar eskolan. Jesusen Teresa santuak, etorkizun senak bultzatua, bere garai-ko elkarte erlijiosoetan egitura aldaketa eragin zuen. Bera dugu inspirazio iturri eta erreferente gure heziketa lanean, etorkizuneko erronkei erantzuna ematen jarraitzeko.

Bihar-etziko arazoak moldatzeko tresna sortzaileak beharko dituzte gure ikasleek. Ez dakigu nolakoa izango den etorkizuna, halere, badakigu etengabeko aldaketa jasango duela. Arazoak ez dira egungoak izango, beste batzuk baizik. Arazoak konpontzeko baliagarria eta nahikoa den berrikuntza deskubritu eta erantzunak eman beharko dituzte. Horretxegatik irudimena duten ikasleak nahi ditugu, ideia bereziak otu eta gauzatzeko gai direnak, iaotasunez pentsatu, zer nahi duten eta nola lortuko duten dakitenak, beraien burua bakarka eta taldean antolatzeko trebeak, errealitateari bizkar eman gabe, aitzitik, eraldatzeko prest direnak.

Neurozientziak aurrerakuntza nabarmenak ekarri ditu gizakia ulertzeari dagokionez. Besteak beste, pertsona bat ikasten ari denean zer gertatzen den argitu du. Ez dago ikasterik gogoa bizkortu gabe eta norbanakoaren ikasketa bideratzeko bere adimen-anizkuna ezagutu eta suspertu behar dugu: hau dakigu egun. Pasiboak diren metodologiek ez dute ia eraginik ikasketa aldian. Ondorioz, autonomia handiagoa eta norberaren ekimena areago bultzatuko duten metodologiak ikertu eta erabili nahi ditugu.

Teknologiak, mugikortasunak eta globalizazioak hiperkonektatua dagoen mundua itxuratu dute. Ikasleak bizitzarako hobeto prestatuko ditu gure eskolak eredu pedagogiko kolaboratzailea badu, esan nahi baita, lansareak osatu eta jakintza eta esperientzia barnean uztartzeko gai bada. Teknologiaren erabilera, alegiazko ikasketa eta sareak eraikitzea aukera berriei irtenbidea ematen dien eskola diseinatzea da, non **harremanak-dituen-ikaslea** dimentsio berri batean sartzan den ikasketa-subjektu gisa.

## ALDAKETA DISENATZAILEA DEN ESKOLA

Hezkuntza elkarteak osatzen du Teresar eskola. Ikasten ari den taldea denez, izaki biziduna da, hots, talde irekia, dinamikoa eta arina da. Ikasi, ezberdinak direnekin elkarreraginez eta dagoen testuinguruan parte hartuz egiten du. Jakintza-aren kudeaketa eta eskola erakundea ulertzeko modu berria islatzen du Teresar eskolak, gune bat bezala: parte hartzea, denen lana, berrikuntza eta sormena gauzatzeko gunea. Aldaketarako proiektu bizi-emaileak sortuko dira gune horretan; hezkuntza elkarteko atal guztiak erakartzeko gauza izango diren proiektuak.

Tesar eskolak errealitateari egin nahi dio so. Dagokion gizartean unean uneko erronkak eza-gutu nahi ditu haien pareko estrategiak burutzeko. Teresar eskola irakaskuntza eta ikasketa leku baitu eskolakide orok: gizabanako, talde eta erakundeak. Horretxegatik, bere izaera jorrratu behar du: norberak, edo taldeek, bere buruari egindako galderak ditu aldaketaren iturri; erantzunak sormena eta bestelako pentsamolde kritikoa ditu oinarri (**critical thinking**); egu-

nerokotasunak ematen duen jokoa aintzakotzat hartzen du; erronkak ebatzea xaxatzen du.

Tesar eskola etengabeko aldaketan da: bizitza errazteko inguruneen bila aritzen da, aurre ezarritako rol eta kokatzeekin ez dator bat eta testuinguru zabalagoetara hedatuz elkartrukea nahiz kolaboraketa mamitzen du. Hau honela, irakaslea da irakasgai arteko edukiak lotzeko burua: teknologia berriak eta metodologia suspertzaileez baliatuz, ikaslea bere ikasketa prozesuaren arduradun eta eragile bihurtuko du. Guzti honetan, ikasleak ditugu aberastasun eta ideia iturri, elkarlanak sostengu.

Aldaketa bizitza ulertzeko modua da. Barrukoa eta kanpokoa elkarren ondoan jartzen ditu, bata bestearekin harreman jarraian. Topaketa bat da. Barru-kanpo topaketa horretatik abiatuz aldaketa prozesua diseinatu eta denon konpromezua izango du jomuga, pertsona, eskola bera eta gizartea hobetzeko.



## EGITEKOA

“Heziketa helburu eman zitzaion sorrera Teresar Eskola Fundazioari. Heziketa honek bat etorri behar du ebanjelioaren izpirituekin, Eliza Katolikoaren irakaspenekin eta Enric d’Ossóren teresar karismarekin”<sup>5</sup>.

Egitekoak adierazten du gure teresar eskolak muinean duen helburua zein den. Gure fundatzailea den Enric d’Ossó santuaren karisman sus-traitua dago eta Jesusen Teresa santuan inspiratua. Egitekoak adierazten du hemen zergatik gauden, gure ekintzen zentzua zein den eta beste eskolekiko ezberdintzen gaituen izaera zein den. Erakundearen hezkuntza-proiektuaren bizigarria da.

Sei oinarrietan datza:

- Gure burua heziz hezten dugu
- Harreman-pertsonak hezten ditugu
- Gizarte eraldatzaileak hezten ditugu
- Lidergo espirituala soinean dutela hezten dugu
- Aldatzen lehenak izan eta hala hezi
- Sormena hezten dugu

<sup>5</sup> Sorrera Gutuna



## BESTE HEZI GURE BURUA HEZTEKO

Topaketak eta pertsonen arteko harremanek duten heziketa balioa azpimarratzen du teresar eskolak<sup>6</sup>. Hau dela eta, hezkuntza elkartean jasotakoa norberaren garapen eta hazkuntzarako esperientzia onuragarri bilaka dadin nahi du. **Hezkuntza aurrez pentsatutako harreman suspertzaileek osatzen dute: lehenbizi, norbera bere zilborretik edo ezagun duen horretatik aterako dute eta gero, ateratakoan, mutur aurrean jarriko zaizkion ezberdintasunek eraldatuko dute. Azkenik, eraldaketa hau bere egiten badu pertsonak, esperientzia bihurtuko du atzera<sup>7</sup>, bere nortasunaren zati bilakatuz. Topaketak bi pertsona behar ditu aurrez-aurre eta hizketa garbian, biengan eragingo badu. Hau dela eta diogu: Bestea heziz hezten dugu gure burua.**

Jesusen Teresak eta Enric d'Ossók konbinaketa txit txukuna egitea lortu zuten, honakoak irunez: barruko bizitza, haien garaiko gizartearekiko konpromezua eta josi zuten askotariko harreman-ehuna. Hari hauek ditugu guk ere gure prozesuen eta erabakien lerrabide. Teresar eskolak jende guztia hobea izan dadin nahi du eta denon ongizatea eta onura lehenetsi dezan.

Gizakiaren hobekuntza prozesuan pedagogiaren funtsetako bat da hezkuntza elkartea -berau osatzen duten taldeak, bakoitza bere ezaugarrietan sendo-. Elkarri lagunduz nahiz elkarren berri emanez gizakia hobetzeko prozesua errazten dute haien baitan.

Ikasketa elkarte izan nahi dugu. Horretarako, emozioentzako giro egokia behar dugu. Pertsona nahiz talde bezala batuko gaituen giroa hain zuzen, elkarrekin ikasi, dakiguna elkarbanatu

eta garen bezala, ezberdinak, elkarri eskaini gakizkion. Parte-hartze eta sormen metodoak behar ditugu giro hori sortu nahi badugu, baita pertsona bakoitzak bere hazkunde kurrikuluma jorra dezan gidalerroak ere.

Pertsona bakoitzaren neurrira egindako hezkuntza ereduaren aldekoak gara: hots, pertsona da ereduaren muina, eta gainera, erabaki hartzailea eta erabakien erantzulea da. Gure eguneroko proiektuak diseinatzean eta antolamendu moldeetan eredu hori islatzen dugu, baita hezitzaile nahiz familien parte hartzea eta autonomiari bide ematean ere.

Talde kooperatiboetan oinarritutako ikasketa hezkuntza-eredu erabakigarriak nahi ditugu. Elkarlana geletan ez ezik, hezitzaileen lanean eta zuzendaritza taldeen antolaketan ikusi nahi dugu.

Pertsona da gure egitekoaren funtsa, pertsona bakoitza baliotsua baita bere horretan. Ikasle bakoitzaren gaitasunei oihartzun eginez, bakoitza dagokion gailenera irits dadin behar duen arreta ematen saiatzen gara teresar eskolan. Nola? Adimen guztiak indartuz. Era-kundea pertsonaren mesedetan dago, beraz, ikasleak haien dohainekin onartzen ditugu: orohartzaileak gara eta berdintasunean sines-ten dugu. Errealitateak kokatzen gaitu zuzen gidalerroak atontzeko garaian, bai kurrikuluma, bai antolaketa bada (auzo lana eskolan, hastapen-taldeak, harrera egitasmoak...). Antolaketaren ildoan, guraso-haur topaketak antolatzen ditugu apropos, tutoretzan edo heziketa-orientabidean.

## HARREMAN-PERTSONAK HEZTEN DITUGU

Teresar hezkuntzak pertsona, emakume ala gizon, harremanerako den heinean ulertzen due-nez, harremanetan eta inguruko munduaren ezagutzan finkatzen du hazketa eta ikasketa. Zer esanik ez dago besteekin eta errealitatearekin harremanetan bizitzeko gauza izan dadin heztea duela bidea, transzendentziari eta Jainko-Lagunaren harremanari abegikor izanez.

Teologia ikusmoldea dugu berau: Jainkoa pertsona guztiengan topa genezan irakatsi zigan Jesusek. Harreman dimentsioa. Haren ebanjelizazio lana pertsonekin buruz-buru egotean zetzan. Harreman dimentsio honen garapenak, zeinak gizaki orori duintasuna aitortzen dion eta laguntasuna bultzatzen duen, heziketa pertsonala ahalbideratzen du eta jendearekin biltzen garen une bakoitza Jainkoarekin ariko bagina bezala bihurtzea. Sinestunak Jesuse-

kin duen laguntasuna du harremanetarako lur emankorra, bizkor bizitzen lagunduko diona. Batak bestearekin ditugun harremanak ditu bizibide Teresar hezkuntzak. Laguntasuna sustatzen du, gainera. Gu gara gure giroetan sortzen ditugun harremanen arduradun, haietan hez-ten baikara eta baitugu. Harreman samurrak, gizatiarrak dituen hezkuntza giroa sortzea beharrezkoa dugu. Honela bakarrik azaleratu eta elkarbanatuko dituzte pertsonak sentimen-duk, ideiak, usteak eta jakintzak, edota zabal-duko dute beraien burua ezberdinaren parean, jantziko dute haien burua inguruan jazotzen denarekin eta gizarte osoarentzat onuragarria denean haien apurra jarriko.

**Topaketa-subjektu<sup>8</sup>** gisa hazi nahi dugu jendea, harremanerako garen heinean.

<sup>6</sup> THE Hezkuntza 2

<sup>7</sup> THE Hezkuntza 1

<sup>8</sup> Berezko Izaera HEZKUNTZA HELBURUA. Topaketa-subjektuak

## GIZARTE ERALDATZAILEAK HEZTEN DITUGU



Gizartea eraldatzeko gauza izango diren pertsonak heztea dugu Teresar eskolaren zinezko helburuetako bat. Gizartea aldatzeko tresnarik egokiena hezkuntza dela biziki uste dugulako gauzatzen da gure proiektua eskoletan. Helburu hau, baina, egiazko bihurtuko da gure ikasleek haien talentuak gizartean jokoan jarri eta areagotzen asmatzen badute eskola amaitutakoan: afektibitatea, adimena, harremanetarakoak eta espiritualtasuna.

Gu nor garen hala hezten dugu. Errealitatea gara. Errealitatea bizi dugu, bere aniztasun eta konplexutasunari besarka. Errealitatearen eraldaketan lan egiten dugu, eralda gaitzan utziz, beti ere, Jesusen proiektua gidari<sup>9</sup>. Enric santuak haur eta gazteen eraldaketa indarrean uste osoa zuen. Guk, berak bezala sinisten dugu haurren-gazteen eraldatze ahalmenean eta horregatik diogu berau sendotzen ikasteko ikasketa leku behar duela eskolak.

Jokabide batzuen aldeko grina duen pertsona hezi nahi dugu: **gizartean, bai bere inguruan, bai munduan, zer dagoen ikustean begirada ulerkorra eta kritikoa duen pertsona ekintzailea.** Gardentasunak gaineratu beharko du ustelkeria, hauxe du helmuga. Mesfidantza edo norgehiagoka ordez, kolaborazio harremanak landuko ditu...<sup>10</sup>

Gizarte eraldaketarako hezi: zer ote? Gizartea kritikoki neurtuko duen eta abegikorra izango den pertsona heztea da guretzat. Errealitatea begiestean, ezberdintasuna aberastasuna dela dioena, zuzentasun eta bakearen alde sutuki egingo duena, ongizate orokorraren alde bete-betean egiteko prest dagoena, baita giza-eskubideen nahiz baliaideen banatze zuzenaren

alde ere. Gizarte eraldaketaren zati izateak jarraibide batzuk sortzea dakar: **hezkuntza elkarrekin osatzen duten guztiek ezagutu bezate zer den gizarte-eraldatzaile izatea; ikasketa gunea bilaka bedi eskola, zeina elkarriketa, barkamena, baketzea, parte hartzea, elkarrekin jardutea, begirunea, enpatia eta errukia zer diren norberaren larruan bizitzeko lekua den...**<sup>11</sup> Kurrikuluma da tresna: gizarte zuzenagoa lortu aldera jarraibide eta ekintzak pentsatu eta egikaritzen lagundu behar du.

Ekintza-batasun bila, teoria eta praktika arteko koherentzia eutsiz, hezkuntza ildoak jartzten ditugu martxan, egitasmo zehatz, zabal eta neurgarrietan gorpuztuak<sup>12</sup>. Era ezberdinetako proiektuak gauzatzen ditugu ikastetxeetan: solidaritate eta bolondres proiektuak, gizarte-ekintzailtza, ikasketa-zerbitzua, Design for Change eta abar.

Teresar hezitzailea THE agirian egindako aukerekin eta gizarte eraldaketarako emandako hitzarekin bat dator<sup>13</sup>. Bere ingurumaria eta testuingurua nolakoak diren jakitun, hobetu nahi ditu eta hobetze bidean konponbideak bilatzeko buru-belarri dihardu. Lanean eta harremanetan azaltzen duen jarrera ditu eman nahi duen heziketaren lekuko, balioetan onena den eskolari bide eginez<sup>14</sup>.

Jesusen Erreinuaren balioak zabaltzeko gai den heinean, (orohartzailtza, abegikortasuna, ekologia, elkar-lana, senidetasuna...), eskolak beste era bateko bizitza aurrera ateratzeko aukera eskainiko diogu munduari. Hau bere horretan eraldaketa da.

<sup>9</sup> THE Hezkuntza 4

<sup>10</sup> Ikus., THE Gizartea 2.3

<sup>11</sup> Ikus., Berezko Izaera. 3 Hezkuntza helburua

<sup>12</sup> THE Hezitzailea 1

<sup>13</sup> THE Hezitzailea 1

<sup>14</sup> Berezko Izaera 4. Hezkuntza estiloa. Hezitzailea





## SORMENA HEZTEN DUGU

Teresar eskolan jasotako ondarea eta aberastasuna ditugu motibazio eta bulkada gaur egungo -eta etorkizuneko- berrikuntza prozesuetan aurrera egitean. Motibazio hori da metodologia eta egiturak zehatzak bultzarazten dituen: jakintza sortzeko pertsonen elkarrekintza oinarri duten metodologiak, hain zuzen. Jakintza sortu, pertsonak aukera berrien sortzaile egin eta sortutakoa etorkizunera bideratzea dute funtsa. Heziketan aurrena trebetasunak eskuratzeko da: sormena, komunikazioa, elkarlana, pentsamendu kritikoa. Trebetasun horiek dira lanabes eta helburualdi berean, ikasten ikasten dakiten -metakognizio prozesuak- ikasle autonomoak eta ekintzaileak lortu bidean.

Sormena hezteak behar hauei atea zabaltzea dakar: amesteari, prototipoak definitzeari, adi-

men anizkunaren aberastasunari, elkarlan eta ekimen metodologiei. Denek aberasten duten eskola litzateke hau.

Gure ikasleak gizarte aldakorrean biziko dira eta sormena beharko dute, galderak egin, erronkak mahaigaineratu eta ildo berriak irekitzeko. Haatik, eskola osoak izan beharko du sortzaile. Eskola sortzailea nahi denean sormena lantzen jardun behar da eta heziketa prozesuan zein ikasleen etorkizunerako aberastasuntzat jo.

Edozein talde, ikasgela, edo alegiazko ikasgela, ikasketa-elkarte eta subjektu-eraldatzailerik bilaka dadin, beharrezkoak dira aldaketak onesteko sormena eta trebetasuna.





## BALIOAK

Gure hezkuntza-moldea, pertsona eta bokazio profila, antolamenduarekiko dugun jarrera, teresar hezitzaileen jokabidea (irakasle edo ez irakasle) eta gure hezkuntza elkarte definitzeko balioak era errazean zabaldu nahi ditugu. Gure EHEarekin bat datozen balioak zeintzuk diren ahoz gora esan nahi dugu, zein ezaugarri dituen gure erakunde-izaerak, gure nortasunak, beste erakundeen izatetik bereizten gaituztenak. Gure erakundea osatzen duten pertsonak, honela, jakingo dute zeri heldu, zein ekintza eta ekimen diren teresar nortasunarekin bat datozenak.



## BURU IREKIA

Teresar hezitzailea aldaketei adi dagoen pertsona da. Etorkizun ikuspegia dauka. Kontuan hartu behar dugu, gure instituzioan zein gizartean, aldaketa beti ematen dela. **Besteak hezitzen dugu gure burua: gu nolakoak garen, guk zer bizitu, hala heziko dugu. Errealitatea, anitza, konplexua da eta hala onartzen dugu. Haren eraldaketan jarduten dugu, hark eraldatzen gaitu gu ere. Gure heziketa lana errealitatek abiatuko da eta den bezala onetsiko dugu, bai eraldaketarako duen indarrean, bai bere zabalatasunean<sup>18</sup>.**

Buru irekia izatea ez da egunetik gauera lortzen den kontua. Hau dela eta, gure hezitzaile eta ikasleengan aldaketa aurreikusi eta antolatzeko jarrerak pizten ditugu. Aldaketetara ohitzea lan zaila dela badakigu. Oraindik areago, aldaketarako arrazoiak geureganatzea. Eta hori nahi dugu, ikasketa, bizitze eta komunikazio molde berriak ikasi. Belaunaldi berri baten ikasle bihurtu behar dugu hezitzaileok, haiek eraman gaitzate aurrera. Guk haiengan uste ona jarriko dugu, gure gizartea berregin eta hobetuko dugula sinetsiz.

Aldaketara egokitu eta geure egin ostean, guk geuk bultzatu nahi dugu aldaketa: historian leku izan dezagun, kulturaren presente egon gaitzen, eta zer esanik ez, sendien eta gizartearen bizitzetan oihartzun izan dezagun bultzatu nahi dugu.

Balio honekin bat datorren jarrera, hona zein datekeen: pertsona irekia egotea, ezberdina balioestea, begirada garbia eskaintzea denei, **gure kulturak ederra dela dionaz kanpo ere ikara gabe ikustea, hark zer ekarriko zain egonez<sup>19</sup>**. Buru irekiak gara bihotza baikorki zabalitzen dugunean ikasle eta lankideok, denak entzun eta onartzen ditugunean, inor ez dugunean aurre epaitzen.

Irekiak gara datorkigunari gure burua zabalitzen saiatzen garen aldioro-esan nahi baita, aurrerapen pedagogiko, sozial eta zientifikoetan. **Aldaketa-garaia da, ziurtasun eza da nagusi. Badakigu. Horren aurrean eguneraketa dugu bidea, gau eta egun. Bakarrik ezinezkoa dena besteekin lortuko dugunez, zientzia eta akademia munduarekin elkarreragin eta helburu berdina dutenekin loturak estutu nahi ditugu<sup>20</sup>.**

Balio honekiko koherentzia norberak bere burua eguneratzen erakusten du. Gure buruzagi eta hezitzaileek haien burua jantzen nekatuz eta denbora igaroz erakutsiko dute: esperientzia berriak eta adituak irakurriz, hausnartuz, agurtuz, harremanetan jarriz eta haiengandik ikasiz, **emaitzarik onenak ematen dituzten jarduerak haien egitean sartuz<sup>21</sup>**.

## EKINTZA ZALETASUNA ETA KONPROMISOA

Enric d'Ossó santuak bazuen esamolde bat balio horiek egoki islatzen zituena: "ekin lanari". Teresar hezitzaileak ekimena du, esku artean duen horretan uneoro buru-belarri ari da, zeregin eta proiektuetan murgildu egiten da, izan ere, Teresa santuak esanari jarraiki, **"maitasuna beti bor-bor dabil, zer egin pentsatuz"**<sup>22</sup>.

Bizitzaren aurrean hezitzaileak pasiozko grina erakutsi behar du, horixe du jarrera, eta teresar proiektuarekiko bere atxikimenduak alaitasuna zabalduko du. Horrela, izango gara kolorez betetako oasia, jendarte ugari bizi den mundu grisaren erdian.

Teresar hezkuntza proiektua norberarena balitz bezala sentitu eta haur zein gazteen hezkuntza konpromisoz bizitu behar dute ikastetxeko irakasle zein langileek, bokaziozko hezitzaile izango badira. Gainera, beren formazioa, profesional moduan, sakondu behar dute, beraiek pertsona bezala besteekin batera hazteko, batetik, eta ikasleen ikasketa prozesuan zein elkarbizitzan bitartekari gisa aritzeko, bestetik.

Teresar hezkuntza proiektua norberarena balitz bezala sentitu eta haur zein gazteen hezkuntza konpromisoz bizitu behar dute ikastetxeko irakasle zein langileek, bokaziozko hezitzaile izango badira. Gainera, beren formazioa, profesional

moduan, sakondu behar dute, beraiek pertsona bezala besteekin batera hazteko, batetik, eta ikasleen ikasketa prozesuan zein elkarbizitzan bitartekari gisa aritzeko, bestetik.

Teresar hezitzaileak pertsonarekin du konpromisoa. Pertsona da gure ardatza eta eskolako proiektuen neurria. **Hezitzaileen komunitateko partaide sentitzean, harrera eta afektua norbere azalean nabari ohi dute hezitzaileek eta horrek, hurrena, pertsona osoa hezten duen formazioarekin konpromisoa eta formazioan bidelagun bilakatzea ernatu ohi du. Formazioa barnekotasun eta hartu-emanen bidean berrera doa<sup>23</sup>.**

Jarduera ezberdinetan, bileretan, topaketetan, ikastetxeen egunerokotasunean, partaidetza eskatzen den uneetan... parte hartzeak amankomuna den proiektuarekiko atxikimendua islatzen du.

EHE Erakundearen hezkuntza egitasmoan jasotako proiektua elkarrekin gauzatzeak, formazio ibilbidea burutzeak, ikasketa ereduak ikastetxean ezartzeak, ohitura egokiak denok batera eraikitzeak, lidergo espirituala bideratzek, guzti horrek, konpromisoa ekarriko du eta ondorioz, pertsona zein erakundearen aldeko ekimenak, ere bai.

<sup>18</sup> THE Hezkuntza 4

<sup>19</sup> THE Teresar Hezkuntzaren Mistika 1

<sup>20</sup> THE Hezitzailea 3

<sup>21</sup> Berezko Izaera 4. Heziketa modua. Hezitzailea

<sup>22</sup> Teresa Santua Bizitza 30,19

<sup>23</sup> Berezko Izaera. Hezkuntza Elkarte / Komunitatea

## AUSART ETA GOGOTSU

Pentsakizunetan goi mailako ideiak izatea laungarria da oso, ondoren ekintzak edo egitekoak hala izan daitezzen<sup>24</sup>. Adorea, aurrera joateko indar dugu, eta horregatik, bai pertsonak bai erakundeak, adoretu eta ausartak izan beharra dugu.

Aitatutako balioarekin bat dator: abentura zaleatasuna eta etengabeko bilaketa jarrera, alternatiba berriak ikertzea eta egiten dugun horrekin gozatzea. Bizitzaren aurrean ikasle gisa aurkeztuz, liluratzeko gaitasuna galdu gabe eta emozio zein gertakariak argi eta garbi adierazteko gaitasunari eutsiz<sup>25</sup>. Jarrera gogotsu eta ausart honen etsai nagusiak bi dira: 'statu quo' egoerari heltzea edo "beti horrela egin izan dugu" ohitura zaharrei eustea.

Balio hauek ikasi eta garatu ahal izateko leku aproposa izatea nahi dugu teresar eskola, horretarako, askatasun giroa sortu behar delarik: pentsamolde dibergentea adierazteko, berriro ahal izateko eta egindako akatsetatik ikasteko<sup>26</sup>.

Balio hauek gure komunitatetan zabaldu ahal izateko, konfiantza –pertsona baitan eta pertsonen artean– sortu behar dugu eta lantaldetan kohesioa, bat-batekotasuna edo espontaneotasuna eta adierazkortasuna orokortze aldera, bizitzaren eta ikasketaren aurreko jarrera moduan. **Ezagutza giza prozesu bat da, bizia, gogoa eskatzen du; osagai bizi hau gabe, hezkuntza eguneroko aspergarritasun bilakatzen da, ikasleak "informazio-jasotzaile" soil bihurtzen ditu eta ikasteak dakarren poza eta ikasketaren jolas ikuspegia ukatzen zaie<sup>27</sup>.**

Teresarrak garenez, jakin badakigu, Jainkoarekin topo egiteak, pertsonak bere dohainak aintzatestea dakarrela ondorio gisa, eta askatzailea den dinamika batean sartu ohi dela pertsona, norberaren alde ederrena gauzatuz eta historian subjektu aktibo izateko prest dagoela. Bizimodu honek, azken batean, benetako zoriontasuna ikustarazten du.

## HAZKUNTZA ESPIRITUAL ETA INTELEKTUAL ETENGABEA

Gure erakundeko kide guztiek (ikasle, hezitzaile-irakasle, langile, sendi) bizitzaren arlo guztietan hazkuntza prozesuaz, modu kontzientean, jabetzea nahi dugu, askatasunez eraiki dezaten haien burua. Norberak bere buruari daraman bizitzari buruz galderak egitea nahi dugu eta bere bizitza etengabeko hazkuntza prozesu gisa irudika dezala, **eman eta jasotzeko ahalmena deskubritu dezan, aukerak egin ditzan, bere burua hobetzeko gaitasuna antzeman dezan, bizitzen ikasteko abildadea landu dezan eta inguruan duen munduarekin konprometitzeko gai izan dadin<sup>28</sup>.**

Pertsonak, haiek uste dutena baino gehiago izan daitezkeela sinesten dugu. Teresar hezitzaileak pertsonari jabetzen laguntzen dio, norberaren kontzientziak jabetzen, etengabeko hazte prozesuan gaudela jabetzen eta hazkuntza espirituala badela jabetzen. Pertsonak bere buruari zera galdetu diezaion nahi dugu: ea gure erakundean pertsona gisa hazten ari diren, egunero ikasten ote duten, profesionalki hazten ari diren, erronka berrietan pentsatzen duten, ea bizitza proiekturik duten. Pertsona bakoitza hazten den neurrian laguntzen dio komunitate hezitzaileari eta erakunde osoari hazten.

Komunitate hezitzailearen kide izatean, asko dira aberastasunez betetako mundu berri bat deskubritzen dutenak eta horrek elkarbanatzeko jarrera ziztarazten die: jaso duten dohaina itzuli nahi diote gizarteari. Gizartearekin konprometitutako pertsona bilakatu ohi dira hala: beraien denbora eta bizitza zentzua duten proiektuetan atxikitzen dute, Eliztarrak izateak damaien zentzu sakona izanik sorburu. Teresar irakasleak bere hezkuntzaz arduratu behar du eta baita bere hazkuntza pertsonal zein profesionalaz ere, taldearen zerbitzura jarriz bere dohainak, ekintza-gogoeta-ekintza metodologiari jarraituz.

Gure nortasunaren ezaugarri nagusienetako bat, bizitza sakontasunez -gertakariaren jabe izanez- bizitzeko gaitasuna da. Hau da, bihotzarekin ikusi benetakoa dena, azalean dagoenetik harago, pertsona bakoitzak ezkutatzen duen altxorra ikusi ahal izateko. Honela, ikusiko baitugu Jainkoa pertsonengan eta historian. Horretarako, ernai dauden pertsonak behar ditugu, transzendentziari irekita, jakin-minez beteta, ikasteko jarrera dutenak, errealitatearekin egunero harremanetan daudenak. Mistikoak diren pertsonak azken batean, pertsonen arreta osoa jartzen dietenak, errealitateari, beren buruari eta Jainkoari.

Tesar hezitzaileak barne-bizitza hezi nahi du. Bere ikasleek, zein heziketa elkartea osatzen dutenek, barne-bizitzan errepara dezaten motibazio berezia du: beharrezko baliabideak eskuragai jarriko dizkie. Hau honela, bizitza begirada berri batetik ikus lezakete ikasleek, eta bizitza osoagoa izan dezakete, Jesusen erara eta Zorionbideak jarraituz. Zentzumenak hezten ditugu ikastetxetan; liluratu, begiztatu, gozatu eta eskertzeko gaitasuna lantzen dugu; emozioak jorratzen; lasaitasun uneak eta isiltasun tarteak gorde eta zaintzen ditugu, eta norberak bere burua ezagutzeko tresnak darabiltzagu gure ikastetxetan.

Modu horretan laguntzen diegu pertsonen Nazaretoko Jesusekin harremana bizitzen -hala nahi badute, erabakiaren jakitun eta aukera askatasunez eginda-: **Jesus bidelagunarekin, Jainkoaren aurpegia eta Hitza<sup>29</sup>.**

Zentzuaren hezitzaile izan nahi dugu. Teresar eskolaren izaeran dago egiten duen guztia-ri zentzua ematea eta horretako baliabideak jartzea. Gainera, Elizan eta gizartean duen zeregin ebanjelizatzailea eguneratu eta berrezagutu nahi du. Teresartzat aurkezten dugu gure burua eta gure izaera karismatikoa zerk bizkortzen duen batera bilatzea garrantzitsutzat jotzen dugu.

<sup>24</sup> Teresa Santua CP 4.1

<sup>25</sup> THE Hezitzailea 5

<sup>26</sup> THE Hezitzailea 4

<sup>27</sup> THE 146. Oharra

<sup>28</sup> Berezko Izaera 3. Hezkuntza Helburua

<sup>29</sup> Berezko Izaera 3. Hezkuntza Helburua

## GERTUTASUNA

Hezkuntza ulertzeko gure modua barne-sinesmen sendo batetik eratorria da: **pertsona topaketetan hazten da**<sup>30</sup>. Fundazioko ikastetxetan dagoen hezkuntza giroak, bereziki abegikortasunak eta gertutasunak, gure ikastetxetara datozen guztien harrera eta integrazioa errazten du Hurkoaren begirada baikorra denean, norberak bertako sentitzen du bere burua, enpatia sortarazten baitu. Gure ikastetxeek eskola orohartzailea bultzatuko duten ohiturak ezarri behar dituzte, topaketa pedagogiaren ikuspegitik...

Gertutasunak zera esan nahi du: pertsonen hartu-emanetarako gaitasuna, elkarriketa eta komunikaziorako jokabideak. Gure printzipioak islatzen dituzten keinu eta hitzak direla medio erakutsi behar dugu gertutasuna eta harrera. Horretarako, "buru irekia" ez ezik, bihotz irekia behar dugu izan, gure harremanetan gardenak izan, benetakoak izan, akademia gaiez gain bes-telako kontuak elkarbanatu, izan ere, komunitate hezitzaile bilakatu nahi badugu, onak diren taldeak baino are gehiago izan behar dugula jakin behar baikenuke.

Adimen emozional eta enpatiaz, trebetasun espiritualak bailtzen mintzatzen gara ia. "Hurkoa" guztiz onartu behar dugu, bidezko bestea bezala, harreman gizatiarrak eraiki nahi izan ezker. Eskola, harreman heldu eta sakonak gauza-

tzeko toki aproposa dugu: gu geu izan gaitzen elkarrekin goazenean. Ez ditzagun norberaren menpekotasun, konplexu edo segurtasun gabeziatik, eraiki harremanak, baizik eta, gure izate jatorretik sor ditzagun, uste ona eta autonomia loratuz – beti ere, gertutasuna eta begirunezko akonpainamendua zainduz -.

Gure komunitateen izate-kulturan barneratua dugu ikasle eta irakasle berriekiko gertutasuna eta harrera. Harrera beren bizitzan une esanguratsua bilaka dadin eta, gure balioen argitan, pertsona gisa hazteko aukera gisa uler dezaten, ordea, urrats bat harago eman behar dugu. **Begirune, harrera, adiskidetasun eta irekitasun harreman gizatiartuak, erakundearen berezko ezaugarriak, energia sortzailea nonahi barreiatzen duten harremanak dira**<sup>31</sup>.

Gertutasunak atzean hauxe du: harremanak sortzeko gaitasuna eta elkarrekin gozatzekoa -elkarrekin egote hutsa eta lanean-. Horregatik sinesten dugu sendi sena duen talde baikorra eratzea nahitaezkoa dela komunitate hezitzailea osa dezagun: elkarrekin ikasten duen komunitatea, bateratua, emozioak adierazi eta loturak sortzeko toki egokia dena; bizitza komunitatea eta espirituala, non bakoitzak bere kezka sakonenak elkarbanatu baititzakeen; fede komunitatea, sinesmena elkarri azaldu eta batera ospatuko duena.

# 2/ TESTUINGURUAK

Bizitzan dauden alderdien konplexutasuna gaur egun zer nolakoa den jabetuta daude Teresar eskolako ikastetxeak: aldaketa sozialak; ikastetxea non, berezko ezaugarriak han; ikasleen jokabide eta beharrak; eredu pedagogikorik onenak; sendiekin lotura izateko gakoak eta taldean lan egitekoak; gure proiektuarekiko koherenteak diren antolamendu moldeak eraikitze gakoak; EHE aurrera eramateko beharrezko lidertza burutzeko gakoak.

Ondorioz, gure eskolan testuinguru horiek denak aztertu nahi ditugu (ikasleak, ikasketa ereduak, langileria eta sendiak), ezaugarri esanguratsuetan erreparatu eta errealitatea hobeto ulertzen lagunduko diguten gako amankomunez hornitu. Gako horien arabera jokatuko dugu jokamolde, irizpide eta gure balioetan zindo.

<sup>30</sup> THE Pertsona. 2

<sup>31</sup> THE Ikasten duten elkartek. 2



## BESTELAKO IKASLE BELAUNALDIA

“Ikasleak dira Heziketa Komunitateko erdigune, Teresiar Eskolaren izateko arrazoia. Segurtasun, gertutasun eta askatasun arduratsu giroan hazten dira, heziketa komunitateko kide guztiengandik onartuak, errespetatuak eta maiteak sentituz”(Izaera propioa, 29.orr.)

Ikasle belaunaldi berri honen potentziala, dohainak eta beharrak go-goan hartu nahi ditugu, beren bizitzen protagonistak eta gizarte eraldatzaileak izan daitezen lortzeko.



## BESTEEI JARRAIKI

Esperientzia berriak zaizkie erakargarri gaurko gure ikasleei, hori dela eta, intuizioz eta inpulsoz jotzen dute haien bila. Bestalde, taldeari jarraitzeak balio handia du berentzat. Motibazio iturri bilakatzen zaie taldea, berebizikoa, eta bertan mugarik ez dutela sentitu eta horregatik jokamolde formalek ez dutela halako garrantzirik ondorioztatu ohi dute.

Benetakoak eta egiazkoak diren esperientziak zaizkie erakargarri. Emozio zein bizipenetan barneratzen dituzten pertsonen lekukotza nahiz kontakizunekin bat egiten dute. "Nor-bait" izan nahi eta besteak bezalakoak, alegia, besteen berdinak, izan nahi dute egiazki eta horregatik itxura eta jarrera berdinak kopiatu ohi dituzte. Protagonista izateko, talde handiaren eta sare sozialen partaide izan beharra sentitzen dute. Ondorioz, hezitzaileak taldearen esperientzia positiboa izan dadin saiatu behar du, gizabanakoa eta norberaren aberastasuna baztertu gabe.

Eginez ikasi ohi dutenez, bizitutako gauza orok konbentzitzen ditu. Horregatik, hezitzaile gisa, esperientziak eta ekintzak bultzatu behar ditugu, teoria baino lehen.

Besteek kutsatuta edo besteei kopiatuz belau-naldi-jokamolde hori hezitzaileontzat aukera eta erronka da aldi berean: gazteekin eta haien jokabidearekin lotu behar dugu guk eta interesgarri zaizkien kontakizun aproposak aurkitu. Beren ikasketa propioan protagonista izateko nahi hori asetzeko, partaidetza sustatu beharra dago, beren ekimenak ontzat eman eta beren ideien ekarpenak aintzatetsi. Arriskatzeko gai direnez, forma eta pentsamolde tradizionalak hautsi ohi dituzte, eta horrela, bilatzen dituzte adierazpen modu berriak.

Irakasleek, ikasleen antzera, ausartagoak, berritzaileagoak, espresiboagoak eta irudimen handiagokoak izan behar dute, ikasgeletan pentsamolde ezberdinak garatuz, ikasketa esperientzia berri bati leku eginaz.

## HUNKIBERAK ETA SENTIBERAK

Gazte belaunaldi honen bizimodua emozioen munduak blaitzen du, sentitzen duten horrekin egiten dute bat, unearen arabera emozio aldakorrak adieraziz. Espontaneoak dira eta muturreko adierazpenak dituzte. Hizkera eta komunikatzeko modua ezberdina dute. Sentiberak dira, gizarteari buruzko kezka dituzte, besteak beste, justizia sustatu eta ingurumena zaindu asmoz. Beren jokabide kultura zentzumenen bidez eratu edo hornitu ohi da eta hor estetika berebiziko garrantzia du (kolorez eta musikaz blai...). Emozioa motibazio iturri da, bai aurrera jarraitzeko, bai esperientzia berriak bizitzeko, bai eta arriskuak hartzeko ere. Honek, aldi berean, hauskor egiten ditu, ordea.

Gazteak horrela direla onartzearekin batera, potentzial ikaragarria dutela jarri behar da agerian, inguruarekin bat etortzeko erraztasuna baitute eta solidaritatea, enpatia eta kreazioaren osotasuna balio garrantzitsu gisa ulertzeko jarrera baitute. Errealitate hau aukera itzela da teresar eredu hezitzailea garatzeko, **azken batean, bizimodua barru-barrutik bizitzeko gaitasuna garatu nahi baitugu, bai beste pertsonetikiko bai Jainkoarekiko harremanean beti ere**<sup>32</sup>.

Gure erakundeak sentitzeko, jokatzeko eta bizitzari aurre egiteko berezko moldea dauka. Beraz, gure erakundearen ikuspegitik emozio eta zentzumen adimenak garrantzitsuak dira errealitatearekin bat egiteko. Heziketa modu hori etapa ezberdinetan sistematizatu behar da, hezkuntza proiektu eta ekintza zehatzak ta-

xutuz kurrikulumaren baitan. Heziketa modu hau ikasleen bizitzan ez ezik ikastetxe osoan zabaldu beharra dago, **izan ere, etorkizunean erakundeek arrakasta izango badute, jendearen ilusioa eta ikasteko gaitasuna probesten jakin behar dute, erakundearen maila ezberdinetan jakin ere**<sup>33</sup>.

Klaustroek adimen emozionalaren garrantzi hori bere egin behar dute eta horretarako prestatuntza jaso behar dute. Eta hemen gabezia bat antzematen dugu, ez baitago estrategiarik ibilbide berri honetan klaustroei lagunduko dienik. Hezkuntza emozionala lortu ahal izateko, prestakuntza teorikoaz gain, **ikastetxean harreman gizatiarrak ahalbideratu behar dira, alegia, informazio berriei ongiatorria egin, sentimenduak adierazi eta jakintza berriak sortzeko aukerak bideratu behar dira**<sup>34</sup>.

Gure hezkuntza proposamenak aldatu egin behar ditugu: burmuinaren eskuin hemisferioa azpimarratu behar dugu, "esperientzia hunkigarriak" barneratzeko, maila pedagogikoan zein pastoral mailan. Hezkuntza esperientzia hauek sentiberatasuna piztu behar dute, adimen mota ezberdinei etekin ateraz (gorputz-adimena, ikusmen-adimena, musika-adimena, espirituala besteak beste). Adimenak hezi egin behar dira eta zentzumenak izango dira hezteko tresna, zentzumenak direnez errealitatearekin dugun komunikazio ildoak, nola kanpoko hala barneko errealitatearekin. Hala, barnekotasuna landuko dugu, kanpoko munduaren ondoren.

<sup>32</sup> Berezko Izaera 3. Hezkuntza Helburua

<sup>33</sup> Peter Senge

<sup>34</sup> THE Lan Eremua. Hezkuntza

## EKINTZA ZALEAK

Belaunaldi honek mugitu beharra du. Ekintza zalea da. Antzeko interesak dituzten pertsonekin bat egiten lagunduko dieten adierazpen moduak bilatu ohi dituzte. Distantzia edo urruntasunik ez dago, bertako zein kanpokoekin elkartzan dira.

Ondo moldatzea lortu eta bihotza irekitzen dutenean, adierazkorrak dira. Emozionalki eta intelektualki azaltzen dituzte beren afektu eta ideiak, aurretiaz zeuden erak edo moldeak eraberrituz. Beren interesak asebeteko dituen horretan eta horri, denbora, energia eta ahalmen guztiak eskainiko dizkiote bete-betean.

Aldi berean hainbat gauza egin ohi dituzte: horrela ulertzen dute ekintza. Mugimendua, geldi ezina da hain zuzen ere, beren izateko era. Eta horixe bilakatzen zaie aukera zoragarri, sormena lantzeko, harremanak eratzeke eta beren buruak diren moduan adierazteke. Azkarrak dira eta abiadura biziz burutzen dituzte ekintzak, epealdiak motzak baitira. Adierazpen estiloak, oso azkarrak eta arinak dira, erraz transmititzailekoak. Haien mundu hau ezagutu beharra dago, bertara gerturatu eta beren hizkera propio horretan eskola dinamiko bat antolatzeke. Horrela

bakarrrik izango baita eskola aktibo eta berri-tzaile hori beren interes eta adierazpen molde anitz horiek barneratzeko gai.

Belaunaldi honen aburuz, mugimendua ez da sakabanatze seinale, bizirik egotearen adierazgarri baizik. Eskolan metodologia ezberdinak erabiliz, adimen anizkunak probestu, ekintzak aldatu eta ikasleak ernai eta aktibo egotea lortu ezker, ikasleek sormena garatuko dute eta elkarren artean harreman eta komunikazioa sustatuko dute. Ekintzak eta mugimendua gazteen bizitzako zati badira ez dirudi zentzuzkoa eskola orduak estatiko eta adierazkortasunik gabekoak izan daitezen. Gazteak eskolan protagonista bihurtu nahi baditugu, ez ikusle edo entzule huts, eskola-erritmoak gazteen bizitzaren antzekoa izan behar du, hezkuntza eskema laburrak eta zentzuz beteak erabiliz, beti ere kurrikulumeko helburuak erdietsi asmoz. Belaunaldi honek bere adierazkortasun sena garatu ahal dezan, guneak,aldiak eta moduak antolatu behar dira eskolan, gazteek haien esperientziak, interesak, kezak eta iritziak azal ditzaten. Horrelaxe bakarrrik lortuko da ikaske-ta erraztuko duen ekintza zaletasuna.

## ONGIZATE GIZARTEKO PARTAIDE

Komunikazio eta informazio bideetan eta iragarkiak egiteko moduan aldaketak izan dira. Medio hauek denak gaur egun ekonomiaren laguntzaile dira eta haur zein gazteak enpresa askoren interes nagusi bilakatu dira.

Gazteen belaunaldi hau ekonomiarentzat pizgarri edo motor itzela da. Gazteen erabakiak erabakiorrak dira urteko enpresen salmenta-zenbatekoan. Gauza materialak edukitzea, hau da, kontsumoa, norberaren garapenerako urrats garrantzitsua dela ulertu ohi dute gazteek, trukean ongizate materiala eta pertsonala eskuratuko dutelakoan.

Iragarki bidez, ez dira produktuak iragartzen soilik, baizik eta, kontsumoa bultzatzen da, produktuek eragiten dituzten sentsazio, balio edota emozioak bitarteko. Zentzumen bidez jotzen duen belaunaldi hau etengabeko publizitate-arreta-hartzailea da. Emozioak bizkortu ezker ekiten diote jarduerari gazteek, bestela ez: kontsumo bultzatzaileek horretan asmatzen dute.

Haatik, hezitzaileek, iragarkien hizkera, publizitatearen estrategia eta metodoak ezagutu behar dituzte, eta horrela, modu hartan, erakar dezakete gazteen arreta, komunikazioa erraztuz eta beren interesguneak ezagutuz. Gainera, gazteei erakutsi eta azalarazi diezaiekegu kontsumoaren merkatu-munduak nolatan eragiten dien eta baldintzatzen dituen beraien bizitzetan eta benetako beharretan.

Produktu markek mezuak zabaltzen dituztenean kontsumitzea bultzatzen dute, mezuak adierazitakoa lortzeko erosi egin behar da eta. Garrantzia duena benetan, aldiz, ez da egingadako gastua bere horretan, baizik eta erositako horrek sortarazten duen sentsazioa: sentsazioa oroimenean atxikitua gelditzen denez. Kontsumismoak emozioak sortarazi nahi ditu, beharren mundu bat piztu haur eta gazteengan, amaiezina eta ase-ezina dena. Benetan, produktuak ez baitira beharrezkoak, bai esperientziak, ezinbestekoak eta propioak haien taldeetan.

## ELKARKONEKTATUTA. MUNDUA DA IKASGELA

Etengabe elkar konektatuta egotea gozamen eta poz iturri da belaunaldi honentzat. Seguratasuna ematen die eta baieztatu egiten ditu gazteak bere nortasunean. Sare sozialen bidez hizkera zehatz, motz eta sinkronikoa darabilte. Teknologia, gizatiartzen, hazten, lan egiten, ikasten, gizarteratzen eta maitatuak sentitzen laguntzen dien tresna da.

Eskolan teknologia tresnak ezagutu eta erabili behar ditugu, gure hezkuntza helburuak lortzearren. Baliabide horiek probestu behar ditugu, isolamendutik aldenduz, online loturen eremuan sartuz eta munduari begira dagoen eskola ireki bilakatuz, horrela, bai bertako komunitateko eskolekin, bai atzerriko eskolekin lan egin ahal izateko. Eta bereziki, teresar familiarekin zein inguruarekin.

Hezitzaileen prestakuntza zabaldu eta eguneratu behar dugu: blogak, wikiak, musika, sare

sozialak, bideoak, diseinua, ikasketa ildo berriak... eta abarrei dagokienez. Horretarako, gogoeta egin beharra dugu eta gure pedagogia-ohiturak berrikusi behar ditugu, norberak bere kabuz egindako ikasketa edo auto-ikasketa zein prestakuntza bultzatuz, taldeko lana sustatuz eta lankidetzaren trebeziak garatuz.

Inguruabar honetan, teknologia aurrerapean eta komunikabideak konfiantzaz, ikuspegi kritikoz eta begirunez erabiltzeko gai diren pertsonak hezi behar ditugu. Harreman gizatiarrak sortuko dituzte honela ikasleek eta beraien burua engaiatuko dute lankidetzaren garapen sareetan. Aipatutako teknologia ingurunea da gure gizartearen ezaugarria eta ikasleek bizi dutena. Sendiok eta eskolak, biok, irizpideak eta prestakuntza bateratu behar ditugu gure ikasleek bizi duten egoeraren jabe izan gaitezen eta aurre egin diezaiogun.

## ZEREGIN ANITZETARAKO ADIMENA (MULTIATAZA)

Gure ikasleek zeregin anitzetarako prest dagoen burua dutenez -adimen multiataza-, aldi berean hainbat ekintza gauza dezakete: sare sozialetan konektatu, pertsona ugarirekin une berean mintzatu, lantxo bat egiten jardun eta bitartean musika entzun.

Erabat ezberdinak diren gauzak batera egin ohi dituzte, eta horrek, arreta sakabanatua izatea dakarkie. Aldi berean hainbat gauza egiteko gaitasun hori erronka itzela da eskolarentzat, izan ere, beren arreta errotu eta ikasketa hobetu dezaketen alternatibak aurkitu behar baititu. Hori dela eta, metodologia aldaketa funtsezkoa da beren estiloarekin bat egiteko eta hezkuntza arloko helburuak bete ahal izateko.

Besteekin konektatuta eta jendez inguratuta daude beti ikasleak. Honek zaildu egiten die azterketa, arreta, isiltasuna... hau da, beren

baitan sartzea. Hala ere, zailtasun hau hezi beharreko erronka eta betebeharra da eskolarentzat. Ikasleak harremanetarako duten alde edo dimentsio hori gara dezaten hezi behar ditugu, "topaketa-subjektu" moduan hazi daitezten. Adimen espirituala lantzea da gure hautamena. Adimen espirituala lantzeak beren burua ezagutzen lagunduko die, beraien buruarekin topo egiten, baita beste pertsonekin eta Jainkoarekin ere.

Teresar eskolan ikasleen ahalmena probesteko, honakoez baliatuko gara, besteak beste: metodologia aktiboak, lankidetzaren eta motibazio iturri dituzten tresnak. Beraien ikasketa prozesuaren burujabe senti daitezten behar dugu, inplika daitezela. Haien barnean sartzeko abaguneak, isiltasun eta gogoeta tartak, otoitz uneak... erraztu behar ditugu, beraien garapen pertsonal eta espiritualean laguntza izan ditzaten.




## IKASKETA EREDUAK

Neurozientzia eta neurobiologia arloko aurkikuntzen eraginez, 1995tik hona iraultza gertatu da ikaskuntza-ikerketetan. Azken hamarkadan, eraginkorrak diren pedagogia eredu asko finkatu da mundu mailan -eraginkortasuna, erakutsia eta frogatua dute-.

Bestalde, teknologia berri eta sare sozialek lankidetzaren modu berriak eta norabide askotakoak erakutsi dizkigute, bai ezagutza mailan, bai ikasketa arloan, bai antolakuntzan. Eta guzti honek eremu ekonomiko, kultural, sozial eta hezkuntzan, nola ez, izan du eragin zuzena.

Horregatik, erakunde gisa, ikaste-piramidean adieraziko ditugun pedagogia aukerak zehaztu beharra ikusi dugu. Piramidearen goiko er-tzean, heziketa gauzatzeko abiapuntu-ikuspegia ageri da: "adimen anizkuna" ereduak. Bigarren mailan, ikasketa taldean eta pertsona ardatz denean ematen dela jarri dugu. Hirugarren mailan, ontzat eman ditugun hiru eredu jakin hautatu ditugu; pentsatze-kultura, sormen-kultura, ikaste eta zerbitzua/ekintzailtza.

Sendiaren lankidetzaren pedagogia aukera hauek burutzeko nahitaezkoa da. Gurasoei jakinaraztea funtsezkoa da, sendia eta eskolaren arteko lankidetzaren lortu nahi ezker.



## ADIMEN ANIZKUNA ETA ADIMEN ESPIRITUALA

Adimen anizkuna eredu ez da ikasgelako metodologian aldaketa huts bat. Aitzitik, nola ikasi eta hezi gure paradigma edo erreferentzia nagusiaren aldaketa da. Horretxegatik bilakatu da eredu hau egungo pedagogia eraldaketan punta puntakoa.

Gaur egun jakina da ez dugula guztiok modu berdinean ikasten. Neurozientziak ikaste prozesuan neuronak nola garatzen diren aztertu du, eta zientifikoki frogatu ere egin du, esate baterako, pertsona batek musika bidez ikastean burmuinaren zati bat erabiltzen duela, eta, aldiz, emozio bidez ikasten duenean, edo ukimena, ikusmena, soinua dela medio... bestelako burmuin zatiak erabiltzen dituela. Howard Gardner jaunak, datu zientifikoa hauek oinarrituz, adimen anizkunaren teoria aldarrikatu du, adieraziz, adimena ulertzeko kontzeptu tradizionala mugatuegia izan dela, hizkuntza, logika eta matematikaren intelizentzia jarri baitu arreta gehienbat, bestelako ikasketa moduei muzin eginez. Ikasketa modu ezberdinak erabilitako burmuin zatiekin lotu ezker, bederatzi adimen mota daudela esan genezake: hizkuntza, logika-matematika, espazioa antzematekoa, musika, zenestesia, pertsona arteko hartu emanen ingurukoa, pertsona barrukoa, natura-zalea eta espiritualala.

Ikasketa ez da zentzu bakarrekoa, dinamikoa eta loturaz betea, baizik. Eredu honen ondorio bat zera litzateke: eskola porrota murriztu liteke. Haur batek adimen mota batean huts egin arren, gainerakotan ondo molda liteke. Gainera, adimen anitzak garatzeak, ikasle bakoitzak norberaren dohainak deskubritzea ekar lezake – musika arloan, hizkuntza gaietan, pertsona arteko harremanetan edo eremu espiritualetan – eta horrela bizitzako pasio bilaka litekeen horrekin topo egitea ahalbidertuko luke.

Adimen espiritualala eta emozio-heziketaren aldeko apustua egin nahi dugu batez ere. Hauek dira gure heziketa proiektuaren ardatz. Xedea, azken batean, pertsonaren zorientasuna baitugu, alegia, pertsonaren garapen pertsonal eta espiritualala. Emozio heziketarako lanabes izango ditugu norberarekiko-adimena (intrapertsonala) eta besteekiko-adimena (interpertsonala). Gure pentsamolde kristauagatik, adimen espiritualala kurrikulum osoan zehar ebaluagarria eta objektiboki txertatuta egon dadin nahi dugu.

Aurkikuntza zientifikoen beste ekarpen bat zera da: burmuina suspertutakoan bakar-bakarrik gerta daiteke ikasketa. Hezitzaileak ez badu burmuin alderdiren batean nolabaiteko sugarra pizten, burmuina ez da aldatzen eta ez dago ikasketarik. Pertsona batek, zerbait behin eta berriz, sistematikoki, bizitu ezker, bi aste nahikoa dira, burmuineko zati bat aldatzeko. Orduan esan liteke, egon dela ikasketa.

Zein ondorio du eskolarentzat adimen anitzen arabera hezteko aukera honek?

Hezitzaileak ez genuke ezagutza emaile soil izan behar. Gidari izan beharko genuke, ikaslearekin batera arituz, ikaslearen gaitasunak abiaraziz, beharrak antzemanaz estrategia eta baliabideak jarriz eskuragai ikasleari.

Ahozko klase magistral metodologia, aldian aldian erabilgarria izan arren, ez da eraginkorra epe luzerako proaktibotasun eskasa duela eta, ez delako eragilea edo pizgarria, eta ez dituelako adimen mota guztiak garatzen. Ikaste mailarik gorena, memoria barne, metodologia aktiboak ezarriz lor daiteke, berauek sortarazten baitute ikerketa, ekoizpena edo ekarpena, sormena eta adimen guztiak abian jartzea.

Adimen anizkun eskola bihurtu nahi badugu, ikasleek zer ikasiko gogoeta egin behar dugu eta horren arabera definitu gure kurrikulum propioa. "Ulermen helburuak" kontzeptuak, ez du legezko kurrikulum ofiziala irakastea baldintzatzen. Are gehiago, ikasketa eta helburu ikuspegi iraultzailea dakarkigu. Adimen anitzak garatzeak diziplina edo gai berriak hautatu ahal izateko irizpideak emango dizkigu, kurrikulum ofiziala osatuz.

Har ditzagun kurrikulum lerro bat eta adimen jakin bat: ez dago lotura zuzenik haien artean. Izan ere, eduki kurrikular oro adimen guztiarekin baitago lotuta. Adimen anizkun bidez hezteak, norberaren iaotasun edo trebetasunak gartzea dakar ondorio borobil gisa. Emaizta neurtu edo ebaluatzeke ikuspuntu berria du, estrategia berriak darabiltza. Pertsona da neurria.

Guk geuk hezkuntza behar dugu gure ikasleek zein adimen motak dituzten igartzeko eta horren arabera -eta haiek egokiago ikastearrendagozkien proposamen pedagogikoak borobil ditzagun.

Adimen espiritualala garatzeko pedagogiak pastoral eredu aldaketa sakona eskatzen du. Hau da, ahalmen existentziala eta espiritualala heziko duen eredurantz jauzi egin behar dugu. Eredu hori, alderdi edo jakintza orotatik landuko dugu, ikaskuntzan sartuko eta aukeratuak ditugun eredu pedagogikoetan oinarrituko.

Gure ametsa harantzago doa. Gure ikastetxeak adimen espiritualaren ikastetxe bihurtu nahi ditugu. Ikasleen, hezitzaileen eta sendien hazkuntza pertsonala gauzatzeko astia eta tokiak bideratuak ditugu, bertan, teresar komunitate fededun gisa esperientzia bizi dezaten.

## IKASTEN DIHARDUTEN KOMUNITATEAK

Gora jaso nahi dugun hezkuntzak, ikasten diharduten komunitate gisa osatutako erakundetan du bizia<sup>35</sup>.

XXI. mendeko gizarteak paradigma horizontal berriaren pean dihardu, izan ere, beste modu berri batean gauzatzen baitugu elkarren arteko komunikazio, lana, aisialdia eta jokamoldea. Eredu horizontal horretan zeresan estua dute teknologia iraultzak, jakintza edo ezagutza demokratizatzeak eta kultura mundu mailakoa bihurtu izanak.

Ikaste-elkarte eredu honek, ikasgela zein ikastetxeko mugak zabaldu nahi ditu ingurura. Lan egiteko ereduak eskaintzan dizkie hezitzaile, ikasle eta beste pertsona zein erakundeei, ikastetxeko proiektuan parte hartuz, eragile aktibo izan daitezen. Sendiak bilakatzen dira ikasketa eta garapen prozesuen laguntzaile aktibo bereziki, Egia esan, sendiek haien burua proiektuko -eta eskolan garatzekoak diren prozesuetako- partaide egiten duten neurrian, ikastetxeko helburuekin bat etorri eta konprometituko dira. Lankidetzazko eredu hau aurrera eramateko ikasgelan kanpoko pertsonak sartu behar direnez, hezitzaileak zeregin berebizikoa du, izan ere, ikasketa prozesuan bitartekari gisa aritu behar baitu, loturak sortuz, konexioak eratuz eta partaidetza sustatuz.

Ikuspegi honetatik, erraz ulertzen da zein garrantzitsuak diren komunitate hezitzailea osatzen duten guztiak. Gure inguruarekin bat datozen giza-elkarte izan nahi badugu, emozionalki bat egiten dugun komunitate izan behar genuke lehenik, denok, irakasle eta ikasle bilakatuz aldi berean.

Lankidetzazko ikasketa ereduaren aldeko gara, zeinak taldearen adimena eta energia probesten dituen sormena bultzatzeko. Taldea ondo antolatu ezker, liskarrak gutxituko lirateke eta norberaren aberastasuna areagotuko, guztion onurarako zatekeena. Etorkizunean haur eta gazteek taldean egin beharko dute lan, adimendun lantokiek, sormena, komunikazioa eta elkarbanatutako diseinua dutelako oinarri. Areago, eredu honen bidez elkarri laguntzeko sistemak garatu ahal izango dira, ikasle guztiak aberasteko.

Ikasten diharduen komunitate batean, elkarriketa bidezko ikasketa funtsezkoa da. Hau, komunikazioaren kontzepzio jakin batean dago errota: pertsonen artean sortzen den eragin-trukean, ikasketarako lanabesak areagotzen dira albo ondorio gisa. Ikasten darraiten komunitateak eraldaketa sozialaren atzetik dabilta: pertsonak haiei dagozkien eta beraien barruan dituzten gaitasunez jabetu eta eskuratutakoan datorren aldaketa. Horretarako, elkarren arteko eragin-trukeak zeresan handiago du, ezagutza teorikoek baino, **jakin baitakigu, irakaskuntza soilak ez duela bermatzen ikasketa bera, borondatezko partaidetzarik ez badago ikaslearen aldetik. Horregatik, ikasketa aktiboaren alde egiten dugu apustu, lankidetzan eta gogoetan funts duena**<sup>36</sup>.

Helduak direnean gizarteko bidegabekeriak aldatuko dituzten pertsonak heztea, gaur bertan ikasleek bere inguruan eragina izan dezaten baldintza egokiak ezarri behar ditugu eskolan. Hori lortzeko gogoeta egin beharra dugu eta kurrikulumean hautabide argiak finkatu, gure agiriak euskarri hartuz.

Kurrikulumean jasota dauden ikasgelako proiektuen ezaugarrien artean: ahalduntzea, ikasleen eta sendien protagonismoa azpimarratuz; komunitate kideen artean partaidetza eta erantzukizuna sustatzea Benetako beharrei erantzun nahi diegu, komunitatean eta gizartean eragin zuzena izango duten erantzunak emanaz.

Erronkarik handiena, ikuspegi sozial honetatik eta gure ikuspegi kristautik, zera da: giza komunitateak sortzean, mundu mailakoak edota

alegiatzeko, aniztasunaren lekuko izan daitezela, harrera gune, gure barnetik elkarbanatzeko gune, gure fedea adierazteko leku, gure komunitatearen beharrei erantzun asmoz. Sare pertsonalak eta profesionalak eratu behar ditugu; elkarrekin banatuko ditugun kurrikulum proiektuak diseinatu behar ditugu, besteen eredu eta praktika egokietatik ikasteko, komunikabide arloko baliabideen aukera guztiak erabiliz: sare sozialak, bideokonferentziak, blogak, bideoak...



<sup>35</sup> THE Ikasten diharduten komunitateak 1

<sup>36</sup> THE 146. Oharra

## IKASLEAREN NEURRIRA

Teresar hezkuntzak norberaren nortasuna itxuratzea dakarten prozesu hezitzaileak diseinatu eta laguntzen ditu<sup>37</sup>. Heztea, azken batean, norberak bere barnearekin konekta dezan saiatzean datza, esperientzia hori izan dezan, bakoitzaren ahalmen zein muga guztiekin konektatuz, eta honela, hazi dadin, bere buruarekiko, besteekiko, munduarekiko harremanean eta Jainkoari zabalik.

Ikaslearen neurrirako ikasketa eredu, teresar eskolan dugun uste sendoarekin bat dator. Hots, ikaslearen neurrirako ikasketa ereduak, ikasketaren ardatz bilakatzen du ikaslea, burujabea den protagonista. Step by step izeneko eredu honen bidez, adimen anizkoitza pentsatze taxonomiekin bateratu ohi ditugu. Eta horrela, kurrikuluma moduluka antolatu ohi dugu, ikasleei askatasuna emanaz beren ikasketa ildoak haien kabuz aukera dezaten. Utopia ederra izanik ere, pixkanaka erdiets genezake.

Pertsonaren neurria egindako ereduaren lehen zeregina zera da: pertsona bakoitzaren, ikasle zein hezitzaile, grina edo dohaina deskribitzea, zertan ari den gusturen; hots, intelektualki biziberritzen duena, barrutik esnarazten duena, "flow" esperientziak sortarazten dizkiona, erronka suposatzen diona eta aldi berean, ikasketa, bere burua hobetzea eta gozamenak ekarriko dion grina hori.

Eredua norberaren kabuz ikastea, autoikasketan, datza. Horretarako, ikasle zein hezitzaile bakoitzak, bere baitan maila egokian barnerratzeko gai izan behar du eta, hortaz, ikasketarako denboraren arduradun izaten ikasiko du apurka.

Hezitzaile bakoitzaren eta ikasleen dohainen ikuspuntutik hartuta, kurrikuluma ikuspuntuen muina da. Ikasketa "step" edo urrats bidez diseinatu ohi dugu (bakoitzaren erritmoaren

araberako maila). Horrela, aniztasunari zuzentzen gaitzazkio arreta osoz, gaitasun eta dohainak erabat eta guztiz garatzearekin batera.

Antolamendu aldaketa bideratu behar dugu honetarako, ordutegia batik bat: izaera berezia izango duen goiza ala arratsaldea, hiru hilabete behin astebetez ordutegi ezberdinak, jakintza arteko proiektuak, talde malguak... Aldaketa, autoikasketaren mesedetan, gero eta mesedegarriago.

Hau guztia eskuratzeko, hezitzaileak goitik-behera aldatu beharra du. Bere zeregina, ikasketa ezberdinentzako eszenatokiak diseinatzea da, ikasleek beraiek nola ikasten duten gogoeta dezaten, eta bestetik, ikasleek beraiek haien ikasketa gida dezaten, protagonista nagusi bilakatuz.

Eraikingune zabalak antolatu behar ditugu esperientzia moduan, epe ertain-luzean, "mega-ikasgelak" bilakatzeko bidean: 50-100 ikasle inguruk egingo dute lan batera, modu egituratu, ikasten ari diren horren emaitzarik sor dezaten batera, horrela, talde bakoitzak eta pertsona bakoitzak ibilbide edo jarduera ezberdinak aukera ditzan. Hau iraultza bat da ikastetxe eta ikasgelaren arkitekturari dagokionez. Sormena, bakardadea -gogoeta edo meditazioa egiteko- sustatuko duten guneak, talde txikitant lan egin, adimen ezberdinak erabiliko dituen jarduerak egiteko batetik bestera mugitu... THEak (Teresar Hezkuntza Egitasmoa) aukeraturako ikasketa eta metodologiaren arabera antolatuz eraikinguneak eta altzariak.

Pertsonalizatzea gaitasun digitalarekin dago lotua. Lehen hezkuntzatik hasita, kurrikulumaren ardatz dira baliabide digitalak, ezagutzaren egiturazko osagai baitira orain eta ondorengo garapen profesionalaren giltzarri.

Pertsonaren neurria den eredu honetan, portfolioaren osaketan ikasketa ez ezik norberaren garapen pertsonal eta intelektuala jaso ohi ditugu, pertsonaren baitako gaitasun eta ahal-

menak neurtzeko tresna bilakatzen delarik horrela. Gainera, gogoeta, komunikazioa, empatia, ikerketa, ideien hierarkia... ere jaso ohi ditugu portfolio horretan.



<sup>37</sup> THE Gidalero Nagusia 1

## PENTSATZE-KULTURA

Arimaren ahalmenik duinena eta garrantzi-tsuena pentsatzea da. Horregatik, landu behar da inteligentziaz. Pertsonaren perfektiorik edo bilakaera azpimarragarriena ondo arrazoitzea baita, arrazoiketa perfektionatuz<sup>38</sup>.

Hezkuntza ulertzeko dugun moduaren arabera, bizitza dugu abiapuntu eta bizitzarentzako gauzatzen dugu gure heziketa proiektua. Horregatik, da hain funtsezkoa gure ikastetxetan pentsatzeko jarrera edo kultura piztea. Gure pedagogia ereduaren funtsezkoena gure ikasleei pentsatzen erakustea da, autonomiadun ikasleak sortuz, beren bizitzarako -arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko- pentsatzeko trebetasunak eskura ditzaten. Pentsamolde sakon, kritiko eta sortzailea garatzeko, lanketa bat behar da. Azken batean hau da pentsatzen erakutsiko duen hezkuntza sistema.

Gaur egun ezagunak dira bi proiektuok: "Thinking based learning" delakoa (pentsatuz eskuratutako ikasketa) eta "Visible thinking" izenekoa (ikus daitekeen pentsatzea) Robert J. Swartz eta David Perkins egileenak hurrenez hurren. Bertan, abildade eta ohitura batzuk sistematizatu dituzte egileok, ahalik eta modu eraginkorrenez eskura ditzaten ikasleek pentsatze-ahalmen eraginkorrak, kurrikulumeko edukiak ikasi bitartean; gainera, ikasleek edukiak uler ditzaten eta eraginkorki erabil ditzaten eta bizitzarako baliagarri izango zaizkien abildade eta trebeziak garatu ditzaten ere badira.

David Perkins-en pentsamolde ohiturak estrategiak dira, pentsatzeko modu jakin bat, (kritikoa, sortzailea ...) edota mugimendu bat (ideia lotura, ideien muina antzeman...) suspertzeko asmoz gauzatua. Pauso gutxi dira, argi eta zehatzak, konstantziaz eman beharrekoak, ikasleei pentsalari hobeak izaten lagunduko bazaie. Partaidetza eta talde-ikasketa metodologia eraginkorrak dira gainera, ebaluaketa errazten dutenak ikasgelan.

Pentsaera sortzaile eta eraginkorraren eskolan garrantzia berezia du metakognizio kontzeptuak (Robert J. Swartz): hau da, arazo bat konpontzeko bideratu beharreko urrats eta estrategiak buruan jasoak izan eta erabilitako estrategiak emankorrak izan diren neurtzeak, hala izan ezean, aldatu ahal izateko. Metakognizio eskaileran deskribatutako urratsak pentsatzeko modu eraginkorra sortzeko lagungarri dira, eta ez hori bakarrik, ikasketa estrategia eta ohiturak sustatzen dituzte, egoeraren arabera aukeratu beharrekoak.

Pentsaera ikusgaiari esker pentsamoldea irudika daiteke eta pentsatzeko kultura tapa-tapa bultzatu. Ikaskuntzaren dokumentazioa: frogak, lekukotzak eta ohitura onak jasotzea. Dokumentazioa giltzarri dugu beste hezitzaileekin elkarbanatzeko, coachinga bideratzeko eta ikasleek pentsatzeko baliabide eta tresna egokiak izan ditzaten eskuragai. Ikasteko bestelako bideak erraztu ohi ditu pentsaera ikusgaiak eta adimen ezberdinak bultzatzen: ikusmena, gorputz bidezkoa, hizkuntza, logiko-matematikoa, etab.

Mekanismo kognitiboetan errepikatzean datza gakoa -ez hainbeste edukian-; errepikatze horixe baliabide da, pentsatze ohiturak ala trebetasunak zer diren ulertzetik haiek sortzera igarotzeko.

Kurrikulum helburuak ofizialki ezarriak egon arren, ez dute ikasketa moduan halako mugarik ezartzen. Horregatik, estrategia osagarriak erabili nahi ditugu, gure ikasleei pentsatzen erakusteko eta etorkizunean arazoak eraginkortasunez konpon ditzaten prestatzeko, ondo pentsatutako erabakiak har ditzaten eta ikasketak bizialdiaz goza dezaten.



<sup>38</sup> Enric d'Ossó Santua. Pedagogia Idazkiak 39. zenbakia

## SORMEN KULTURA

**Ikasten diharduen erakunde batean, bertako pertsonak bere kabuz eta taldean ikasteko jarri dute, zinez interesgarri zaizkien gaiak direnean. Horregatik, haien oinarritzko premien artean sormena eta aldaketak onartzeko gaitasuna dago<sup>39</sup>.**

Sormena behar beharrezko abilezia izango dute gure ikasleek eskola ondoren. Bost, hamar edo hogeitau urte barru mundua nolakoa izango den ez dakigu. Horregatik, zentzu gutxi du konponbide zerrenda bat ematea arazo zehatz batzuei, agian arazo horiek desagertu daitezke. Gauza jakina da, ordea, arazoei irudimenez egin beharko dietela aurre, produktu edo gai berriak sortu, asmatu, bilatu, diseinatu, erabaki, ikasten ikasi eta desikasten ikasi.

Pentsamolde dibergentea: ezaguna ez den edo logikoa ez den modu batez, konponbideak bilatzen ikastea; alegia, begiz ikusten denaz gain ikusten jakitea da, ustegabeko jauziak ematen ikastea, orijinalak, galdera egokiak eginez egoerei erantzun eta konponbide ezberdinak ematean asmatzea da; pentsaera egiturak badiu, baina aukera gehiagotara ere zabal daiteke pentsatzeko modua dibergentea bada.

Pentsatzea berezkoa du pentsamolde matematikoak, logika ikusi behar baita itxuraz kaotikoak diren frogan atzean. Pentsatzea ere berezkoa du hizkuntza-pentsaerak, testuak, egileak, idatzitako lanak, kultura ulertzeko eta baita irudimena dantzan jartzeko, fantasiak eta izadi-pentsaerak hegan egiteko, funtzio eskemak identifikatzen ikasteko... eta abar ere.

Teresar hezkuntzak egunerokotasuna bizitzen lagundu nahi du, eta horregatik, eguneroko "arazoak" irudimenez konpontzeko aukera eskaini nahi du, hasiera batean hain nabarmenak

ez diren konponbideak aurkitzeko -lehen irtenbidea ez bedi beti onartutakoa izan-, asmamen eta sormena lagundu asmoz.

Konponbideak ikasleek bultzatutako interesetatik etorriko dira: erabakiak hartzeko estrategiak jarri behar zaizkie eskuragarri, edo, erabakiak hartzeko estrategian burujabetza eman, egoki iritz ezker. Pentsamolde dibergentea gauzatuz lan egiteko, eskolak eskolagune berezia antolatu behar du -beharretara egokitzeko gai izango dena- eta ordutegi malgua -pentsatzearen prozesuak mugatuko ez dituen ordutegia, hain zuzen ere-.

Pentsamolde dibergentea eskuartean hartuz hezteak proposamenei irekita egotea suposatuko du, eta kurrikulumaz gaindi datozen interesak bere egitea. Norberak bere kabuz ikas dezan irakasleak eskainiko ditu estrategiak. Testu liburuak edukitzeak, ikasgelan ematen diegun erabilerak, zentzurik ote duen egin beharko dugu gogoeta.

Jakintza ezberdinen arteko proiektuek sormena garatzen dute, pentsatze konbergentea darabilen sormena. Arazoetan oinarritutako ikasketak, PBLak (problem based learning), hezitzaileek egoerak diseina ditzaten ahalbideratzen du, baina konponbide bakarra ez duten egoerak. Hau zertarako? Ikerketa bultzatzearen, informazio bilketa, kode sistemak ... azkenean, ezagutza sortu eta konponbideak aurkitze aldera.

Gamifikazioa (gamification) edo Jolasikastea giltzarri dugu ere: talde-ikasketa jolas moduan bultzatzen du eta sare sozialak komunikazio, transmisio eta informazio tresna bilakatzen dira, sare sozialek zerbaiten kide bihurtzen zaituzte, gizarte eta ideologi aldaketa haus-

potzen dute, agiriak elkarbanatzeko aukera ematen, ideiak sortu eta tendentziak ezarri ohi dituzte eta beste.

"Design Thinking" -pentsatzea diseinatu- delakoa, alderdi dibergentearen hezurramitza da konbergentearen adina:

### **Alderdi dibergentea:**

"enpatizatzea", bestearen tokian jartzean datza, inguruari begiratzea, pertsonari, bezeroari eta beren interesari eta beharrei begiratzea, baina ohikoa ez den moduan, beren mundua beren barne ikuspegitik ulertzeko eta baita kanpoko behatzailearen ikuspuntutik ere. "Irudikatzean" datza, halaber: hautabide ezberdinak sortu, zenbat eta gehiago eta zenbat eta ilogikoago hobe.

### **Alderdi konbergentea:**

ereduak finkatzean datza, alde guztietatik begiratuta konponbide onena izango dena pen-

tsatu eta irudikatzeak, bizitzan zehar bizitako esperientziekin antzekotasunak eta loturak ezarriz. Iterazioan datza ere, hau da, azken produktua erabili, ebaluatu eta berriz findu, diseinu landua lortzeko azkenean.

### **Ikerketa eta esperimentazioan oinarritutako ikasketaren aldeko apustua da gurea:**

gutziz bat dator euskarri den teresar "ekin-tza-gogoeta-ekintza" dinamikarekin. Horrela, gogoetatuko duten pertsonak heziko ditugu, beren buruarekiko, ekintzekiko eta konponbideekiko kritikoak izango direnak eta hobetzeko gaitasuna dutenak. Ikasketa eta garapen kognitiboak datekeena, orduan, hazkuntza pertsonal eta espiritual bilakatzen da: pertsona bere buruari galderak egiteko gai da eta bere balioren arabera behar-beharrezko erantzunak topatzeko gai.

<sup>39</sup> THE 140. Oharra

## IKASKETA ETA ZERBITZUA

Teresar hezkuntzaren zentzua bete-betean gauzaten da, komunitate hezitzaileko kideak gaitasunez janzten dituzenean eta hauek eraldaketa soziala eragiten duten ekintzak burutzen dituztenean<sup>40</sup>.

Teresar hezkuntzak ikasleak gizartearen eraldatzaile bihurtzeko daitezen nahi du. Teresar hezkuntzaren helburuak lortzeko, gure ikasketa piramidean helburuak sistematizatzen baldin bada, izango ditugun pedagogia eredu zehatzak aurreikusi ditugu.

Ikasketa-zerbitzua deritzoguna, ikasketa eredu jakin bat dugu, etorkizunean gizarte aldaketa sakona sortuko -eta ingurua eraldatuko- duten hiritar konprometitu eta gaituak hezteko helburua duena. Eredu horren giltzarria ekintzen bidez ikastean datza, alegia, gizartearekiko konpromiso zehatzetan eta pertsonen edo gertuko taldeei zerbitzua ematen ikasi nahi dugu.

Ikasketa-zerbitzua delakoak, ikasketa proiektuak eta komunitate zerbitzua uztartzen dituzten proiektu bakarraren baitan, ondo egituratuta dagoen proiektuan. Eredu honen bidez, ikasleek inguruko benetako beharrekiko lan egiteko jasotzen dute heziketa. Ingurua hobetzea da jomuga. Adin guztientzako baliagarri da eredu hau, elkarrekikotasun eremuan ikasi eta lankidetzan dihardute, eta horrela, ezagutza zein jakintzaz gain, bizitzarako gaitasunak eskuratzeko dituzte. Esperientzia eta gogoeta bateratzen dituen pedagogia du oinarri eredu honek eta ikastetxeak beste hezkuntza erakundeekin eta gizarte eragileekin lankidetzan sareak irekitzea ahalbidetzen du.

Gure ikasleengan ikusten ditugun ahalmenak kontuan hartuta, mundu mailan zabaldua dagoen "Design for change" mugimenduari bat egin nahi dugu erakunde moduan. Izan ere, horrela erakutsiko baitiegu beren gertuko

inguruak aldatzeko gai direla. "DFC" izeneko nazioarteko mugimenduan parte hartzeak gainera, aberastu egingo du ikastetxea, besteek burututako esperientzia eraldatzaileak direla medio.

Metodologia honen urratsek (sentitu-irudikatu-egin-elkarbanatu) prozesua bera ikasketa eskola bihurtzen dute, non zera ikasten den: errealitateari sakonki begiratzen, sormena, begirunea, pentsamolde dibergentea, taldearen adostasuna eta irakasleak zuzendutako partaidetza.

Horri eskerrak, gizartearekin konpromisoa adieraziko duten ekintzak abiatuko dira, ez dira ideia soilak aipatuko. Gure ikasleak eraldaketaren protagonista izango dira eta ekintza zale gisa haziko dira, gizartearekiko konpromisoa hartu eta Ebanjelioaren balioetan finkatuz.

Metodologia honek, hezitzailearen zeregina aldatzea dakar eta ikasketa, ikasgelaz harago, eguneroko gertakizunekin batera gauzatuko denez, ikasketa molde horri abegikor agertzea.

Esperientziatik ikasteko beste era bat, gizartearen aldeko ekintzaile-proiektuak dira. Honekin, ikasleek, ekintzailea nor-zer den jakin dezakete: gizarte-aldaketaren eragilea, garapen eta berrikuntza sortzailea. Antzeman den gizarte beharrian bati konponbidea emateko enpresa sortzea esperientzia da: ikasleek ekintzaile izateko duten trebezia indartzen du, honela, etorkizunean, gizarte eraldaketaren eragile izan daitezten.

Metodologia hau kurrikulumean zehazpenetan gauzatzean, teresar eskola, gazte berrien ernamuin bilakatuko da. Ez dute gizartetik jaso bakarrik nahi izango, baizik eta, gizarte ekintzaileen espiritua hartu eta aldatu beharrekiko horretaz jabetuko dira, eta bere ekarpenak egingo dituzte aldaketa egi bilakatu dadin.



<sup>40</sup> Berezko Izaera 3. Hezkuntza Helburua.  
Gizarte eraldaketak



## IKASTETXEKO LANGILEGOA

Teresiar Eskola Fundazioaren indar handia bere langilegoan dago. Beren gaitasun eta dohainak elkarbanaturiko Proiektu baten zerbitzura partekatzen duten gizon eta emakumeak. Gure nortasuna eta zeregina Teresiar Eskolan eusten dituen gako karismatikoak eta bokazio hezitzaileak indartu behar ditugu.



## PERTSONAK

Teresar eskolaren ezinbesteko zutarria bertako langileria da, irakasle zein ez-irakasle, denok burutzen eta aberasten baitute gure hezteko eginkizuna. Adin, izaera, bizikizun, espezializatzea, kultura... anitzekoak izateak Fundazioaren aberastasuna eta potentziala islatzen du. Eskolako giroa pertsona hauetako bakoitzaren ekarpenaren ondorio da eta giro horrek lan giroa ere hobetu egiten du.

Teresar hezkuntzak pertsonak topaketa-subjektu eta gizartea aldatzeko giltzarri gisa ikusten ditu. Horregatik zaintzen ditugu bereziki gure eskoletan pertsonen arteko harremanak eta pertsonaren hobekuntza bultzatzen duen edozein ekintza. Pertsonari ematen zaion garrantziaren adierazgarri dira, hain zuzen ere, topaketa informalak, bisitza elkarbanatzeko gune eta une gisa antolatu ohi direnak.

## INPLIKAZIOA

Teresar proiektua gauzatzeko bokazio hezitzaile sendoa behar da, karismarekin sintonia eta zure burua horretara emana eduki behar da: hezitzaileak pertsona inplikatu eta konprometituak dira. Hezitzaile bakoitzak bere egin behar du proiektu honek dakarren erantzukizun pertsonal eta alda ezina. Izan ere, helburuak lortuko badira, denon inplikazioa behar baita eta bakoitzaren konpromiso profesional-pertsonaletik eratorritako talde-aberastasuna.

Hezitzaile bakoitzak zeregin, funtzio eta erantzukizun berezituak hartuko ditu bere gain,

Eskolan emandako urte luzeetako bizitzaldia asko estimatzen dugu. Bakoitzaren bizitza-une ezberdinak aberastasun iturri ditugu. Eta une horietan alboan egoteak hezkuntzarako gure pasioari eusten laguntzen digu. Ikastetxetan hasi berriak diren hezitzaile eta langilegoari harrera ona egiteak eta aldamenean egon eta lagun egiteak -akonpainamendua- berebiziko garrantzia du.

Hezkuntza egiteko horretan denak nahitaezko partaide direla poztasunez senti dezaten nahi dugu. Gainera, egindako lana estimatzen dugula nabari dezaten nahi dugu eta teresar proiektu hezitzailea bideratzeko lan horretan beraien gaitasun zein jakintzan uste osoa jarria dugula uler dezaten.

eskolako antolakuntzaren baitan. Laikoak eta teresar-ahizpak horrelaxe sentitzen dugu gure konpromezua guztion artean eraikitzen dugun misio honetan.

Dena den, oraindik orain, pertsona guztien inplikazioa benetan erdiestea, erronka handia dugu. Hori lortzearren, komunikazio bideak zaindu beharko lirateke, batez ere, eta baita, lanaren errekonozimendua zein baloraketa ere, pertsonaren partaidetzak proiektu amankomunarekin konpromezua areago dezan, azken batean.

## HEZIKETA PASTORAL ETA ESPIRITUALA

**Eginak hitzak baino gehiago egiten du, sinesgarriagoa zaigu ikusitakoa entzundakoa baino<sup>41</sup>.**

Hezitzaileen formazioa edo heziketa funtsezko oinarria da eremu honetan, klaustro bileretan pastoraltzaren zentzu jatorra -hots, hezkuntza ekintza denak bustiko dituen ihintza dela- gogo onez biziko bada.

Pastoraltza hitzak klaustro bileretan mesfidantza eragin ohi du: batzuetan, heziketa gabeziak, bestetan esperientzia pertsonal espiritual propio bat ez izateagatik, edota, ulertze murriztaileak eraginda, zeinak pastoraltza ospakizun puntaletara mugatzen duen. Horretaz gain eta egiari zor bagatzaizkio, hezitzaile guztiak ez dira ere ikasleen heziketa espirituailean inplikatzeko.

Klaustroetan pastoraltzaren esperientzia onuragarria, positiboa iritsi dezaten nahi dugu. Gainera, prestakuntza aproposa lor dezaten nahi genuke ere, ikasle zein sendien erronka nahiz beharrei erantzuteko. Prestakuntza horretan,

berrikuntza eta hizkera mota berriak: espiritu-heziketan eta erlijio hezkuntzan, pedagogia mailan adina baitaratu behar ditugu. Klaustro edo ikasleentzat antolatutako ospakizunetan, espiritualitatea bost zentzumenekin gozatua izan dadin saiatu behar dugu.

Klaustro bileretan, giro aproposa sortu behar dugu, elkartze uneak eta lekuak erraztu behar ditugu, bisitza Ebanjelioarekin uztartzen dituen esperientzia espiritualak bizi eta elkarri ematearren. Esperientzia hauek prestakuntza emango diete hezitzaileei, ebanjelizatze zeregin burutzerako prest izango dira.

Teresar eskolak ulertzen duenez, hezkuntza ekintza oro Jesusen mezua zabaltzeko baliabidea da. **Pastoraltzak ikastetxearen egunerokoa blaitzen du eta ez erlijio gaia huts-hutsik eta komunitate zentzua sortzeko balio du Jainkoaren herria den Elizaren baitan.**

<sup>41</sup> Enric d'Ossó Santua, *Pedagogia Idazkiak* 125. Zenbakia

## PEDAGOGIA ALDAKETA ETA EGUNERATZEAZ ARDURATUTA



IKASTETXEKO  
LANGILEGOA

Enric d´Ossók hasieratik nahi izan zuen teresar ahizpek baliabide onenekin prestatu zitezen, kalitatezko eskola eskaintzeko. Ospe handiko beste eskoletara ikustaldiak egitea aholkatzen zien, pedagogia proiektu berriak ikusteko.

Gaur egun, aldaketa eta zalantza garaiotan, klaustroek etengabeko eguneratu beharra dute, erronka berriei erantzun ahal izateko. Ez dago egungo egoeratik at bizitzerik. Eskolek gizartearekin lotuta egon behar dute, ikasle zein sendien bizimoduarekin lotuta. Klaustroak ipurterre daude eskolan beharrezko diren aldaketak egiteko, gaurko munduari erantzutearren.

Eguneratze horren baitan, gaitasun profesionala, ezagutza eta jakintza gaurkotu behar dira, emaitza arrakastatsuenak ekarriko dituzten metodologiak abian jarri praktikan.

Ikasketa esperientzia berriak diseinatu nahi ditugu. Ikasleak beren ezagutza edo jakintza-aren ardatz eta eraikitzaile bihurtu nahi ditugu, galdera bidezko pedagogia ezarriz, sormena bultzatuz, egunerokotasunarekiko jakin mina biztuaraziz, ikerketa sustatuz, erronkei aurre

**egiteko ausardia areagotuz, espiritu kritikoa azpimarratuz eta talde-lana indartuz<sup>42</sup>.**

Erakundearen pedagogia aukerak, honako Hezkuntza Egitasmo honetan jaso dira, gure erakundearen agirietako printzipiotan errotuta, bereziki, "Teresar Hezkuntza Proposamena eta Teresar Eskolaren Nortasun Agiria (CP)."

Besteengandik ikasteko eta prestakuntza lantzeko beharra nabaritzen dugu. Horretarako, helburu berdinen bila dabilzan pertsona zein erakundeekin hartu emanak finkatu nahi ditugu, denon artean, bakarka ezinezko liratekeen xedeak lortzearen. Horregatik, kalitatezko tar- te edo uneak hartu eta baliabideak jarri behar ditugu, gure prestakuntza areagotze aldera eskolan aldaketa eragiteko.

Guretzat erronka itzela da, beti ikasten diharduen komunitate gisa, klaustroetan eta klaustro artean, pixkanaka ezartzen ari garen hezkuntza esperientziak elkarbanatzea, elkar aberastu gaitezen eta lagun dezagun. Coaching didaktiko delakoa lagungarri gerta dakiguke.



<sup>42</sup> Berezko Izaera. 4. Hezkuntza Estiloa. Hezitzailea.

## DENBORA KUDEAKETA

Klaustro eta talde ezberdinak gara, testuinguru ezberdinetan gaudenak, baina, elkarrekin amankomunean zera dugu; eskolako jardueraz lepo gabiltza (izan ere, proiektu askorekin baitugu pozkario, beste erakundeen proposamenak ontzat ematen baititugu, interesgarriak diren ekintzei harrera egiten baitiegu...). Honetaz gain, gure lanak hala derrigortuta agiriak prestatzen ditugu. Agiriak egiteko, gure zereginak eta gure astia primeran antolatu, plangintza egin, lehenetsi eta kudeaketa beharrean gaude. Horretarako, etorkizunean, ikastetxea antolatu beharra ikusten dugu: ikastetxeko pertsonal guztiak -irakasle zein ez irakasle- talde kohe-sionatuetan buru-belarri parte hartu beharko du proiektuak aurrera ateratzeko, edozein dela ere behar den denbora.

Denbora eta eginkizun kudeaketarako diren tresnen inguruan formazioa behar dugu eta praktikoki zertarako diren ikasi. Bilerak zein erabakiak hartzeko sormena landu behar dugu. Gainera, gure ordutegiak eta gure zereginak birdiseinatu behar ditugu, burokrazia gutxitzeko eta garrantzitsua diren gauzetan -eta ez pre-sazkoak direnetan- emateko denbora, ideia eta proiektuak asmatzen.

Egindako lanaren erregistro bat izan behar dugu, aurretik egindako lanak probestu ahal izateko eta eraginkorragoak izatearren; lana zehatz-mehatz planifikatu; lana taldetan zatitu, zeregin/prozesu fase bakoitzarentzako denbora -tarte zehatz-mehatz ezarri eta betez; horrela, sormena, irudimena eta malgutasunari egingo diegu leku gure eskoletan.

Denbora kudeaketak bi printzipio-talde izan behar ditu gure klaustroetan: kalitatezko anto-lakuntza eta helburuak argi izendatzea. Plangintza ezegokiak gure trebetasunak baliogabe litzake, besteak beste, emozioak eta gertakariak argi eta garbi adierazteko trebezia eta en-patia garatzeko, hots, bestearen tokian jartzeko, ahalegina. Azken batean, talde-lan zuzena era-gozen du.

Gure proiektu hezitzailea errealitatean gauza-tuko bada, elkarbanatutako gure denbora-tarte edo aldiek teresar hezkuntzaganako grina biz-tuarazi behar digute eta elkarrekin ikasteko go-goia areagotu.

## TEKNOLOGIA TRESNAK

Tresna digitalak ikasgelan erabiltzeko beldurra sentitzen duten hezitzaileak aurki ditzakegu oraindik klaustroetan. Ikasleek hezitzaileek baino ezagutza handiagoa izateak izua sortzen du eta gaia ez menperatzeak segurtasun eza sortzen du.

Teknologia berrien erabilerak langileak beraien artean bereizten ditu klaustroetan, ezagutza maila eta ikasgelan egindako erabilera ezberdina dela eta. Guk hezitzaileen talde lanaren aldeko apustua egingo dugu -ikasgela barruan eta kanpoan- ezagutzak partekatzea ahalbideratuko duena, denen ikasketa hobetzeko eta aipatutako ezberdintasuna murrizteko asmoz.

Ikasle eta irakasleen arteko aldea gero eta handiagoa da, eta beraz, aldaketa metodologikoa dakarten tresnok erabili behar ditugu. Eguneratzea gero eta gehiago luzatzen dugun eran, aldea orduan eta handiagoa izango da. **Gure hezitzaileek teknologiaren eta komunikabideen aurrerapenak barneratu behar dituzte, ikaskuntza eta harreman modu bezala**<sup>43</sup>.

Teknologiaren erabilerak zera eragingo du: ikasle-irakasle-eskola harremana ez dadigela ikasitakora bakarrik mugatu; teknologia tresnak ez dira mugatzaile bezala antzeman behar, prestakuntza arloan eta ikasle-irakasle esparruan laguntzailetzat ere baizik. Ikasleekin ikasgelako errealitateak at konektatzeak beren interesak, beharrak eta kezkek hobeto jabetzen lagunduko digu.

Klaustroen eraldaketa prozesuan funtsezko faktoreak bi dira: irakasleek irakaskuntza ereduaren aldaketa onartzea bata, eta prestakuntzan diru inbertsio egokia aurreikustea bestea. Inbertsio zuzena eginik irakasleek beharrezko dituzten trebetasun digitalak eskuratuko dituzte, ondoren ikasleen eskura dauden tresna digitalen irakaskuntzan eta hautaketan gida ditzaten ikasleak.

Maila guztietako ikasleek, zailtasundunek barne, gaitasunak garatu eta trebetasun digitala eskura dezaten, teknologia berriak gako dira pedagogia-tresna gisa. Tresna hauek ikasgela barruan dauden hormak bertan behera botatzen dituzte, ikasleen arteko distantziak laburtzen eta oztipoak ezabatzen dituzte.

<sup>43</sup> Berezko Izaera. Hezitzailea



## SENDIAK

Momentu honetan gure ikasleen familien errealitatea begiratu nahi dugu, eta aurkezten dizkiguten erronkak, horrela familia-eskola elkarlaguntza lortzeko. Izan ere, beharrezkoa da gure heziketa proiektua aurrera ateratzeko. **“Familia eta heziketa komunitateko kideen arteko harremanak aberastu eta indartu egiten du komunitatea bera.”** (Berezko izaera, 9.orrialdea)



## GURASOAK, ERAGILE EKINTZAZALEAK ESKOLAN

Gaur egun sendi bizitza eta egitura aldatu egin dira, Egoera ezberdinak dira nagusi, homogeneotasuna desagertu egin baita. Sendi barruko zeregin edo rolak sendiko kide guztientzat aldatu dira. Eredu asko egonik, harreman afektiboaren kalitateari ematen zaio garrantzia. Sendi egitura txikiagoa izateak ez du belaunaldien arteko lotura hautsi, aitzitik, aiton-amonon garrantzia areagotu egin du, hezkuntza zereginetan, bai afektuei, bai eraginkortasunari dagokionean.

Guraso eta aiton-amonon zereginak hobeto definitu beharko lirateke, seme-alabak hezteko funtzioari dagokionean. Arrisku larriena zera litzateke, ordea, hezitzaile ardura bazterreratu eta hezkuntza osoa eskolaren esku uztea. Eskolak ez luke zerbitzu soil bat izan beharko, non sendiak bezero huts baitiren, eskubide eta betebeharren jabe diren bezero huts. Irizpideak ezarri beharko lirateke, gurasoak eskolan eragile bizi bilaka daitezten.

### Hezkuntza irizpideak edo jarraibideak:

- Inguruabar honetan, teresar eskolak lankidetzat bultzatu beharko luke guraso, ikasle eta irakasleen artean, partaidetza bide berriak asmatuz. Gure deialdiei erantzuteko motibazioa handitu egingo litzateke, bileretan parte

hartzeko aukera balego eta pertsonen esanak kontuan hartuko balira. Ikasgelan metodologia aldatzen ari gara; hala egin genezake ere gurasoekin ditugun bileretan.

- Gure EHE Hezkuntza programa ez dago irakasleei eta ikasgelarako soil-soilik zuzendua, baizik eta denok gara programaren jomuga eta eragile aktibo. Hau da, programan aipatutako balio eta printzipio pedagogiko zein pastoral berdinek sustatu beharko litzukete sendiek etxeko heziketan. Horregatik da behar-beharrezkoa sendiek gure hezkuntza proiektuko aldaketak eta arazoak jakin ditzaten.

- Gurasoei dei egin beharko genieke, gure ikasketak piramidearen ereduak erakutsi ahal izateko: bizi esperientzia zuzenetan oinarritutako ginateke honetarako. Ereduan leudeke, esaterako, sendian nola hezi adimen anizkunak, adimen emozional eta espiritualaren garrantzia, barne-bizitza nola hezi, pentsatzeko iaotasuna nola jorratu, nola irakatsi pentsatzen seme-alabei, sormenaren tresnak eta beste. Gurasoak eragile aktibo izan daitezke zereginotan, hezitzaileekin lankidetzan, ikasketak estrategiak sendotuz.

## ENTZUN ETA ADOSTU

Seme-alaba kopurua sendietan txikitu egin denez, seme-alabak dira etxeko erdigune. Horrek belaunaldi arteko harremanetan izan du eragin zuzena. Gazteen negoziaketa edo hitzarmen ahalmena areagotu egin da gurasoen parean eta etxe barruan ekintza ezberdinak egiteko askatasuna ere bai, ondorioz.

Gaur egungo sendietan harreman pertsonalak demokrazia irizpideetan oinarritzen dira. Lehengo garaian argi zegoen nork agintzen zuen eta nork bete behar zuen agindu. Sendiek egun erabakiak adostasun bidez hartzen dituzte. Gurasoen komunikazio gaitasunak egokiak ez direnean, ordea, autoritate orekatu bat burutu ahal izateko zailtasunak eratorri ohi dira.

Sendi barruan eta sendi-eskola artean, harremanek gertukoak izan beharko lukete elkar entzute eta negoziaketa eredu batean oinarritua. Eskolak emozioen ezagutza bultzatu behar du irakasle eta tutoreen eskutik, eskaintza ikasle nahiz ikasleen sendiei luzatuz.

### Hezkuntza irizpideak edo jarraibideak:

- Gurasoek abilitate sozialak garatzeko heziketa behar lukete: entzuteko jarrera izan dezaten, entzuteko inguruak sor ditzaten, argi eta garbi eta sendotasunez mintzatu ahal izateko elkarriketan eta zerbait eskatzean. Horrela, seme-alaba asertiboak heziko dituzte ondorenean.

- Gurasoek elkarriketa eta elkar entzutea uzartu beharko litzukete, arau zein mugak finkatzerakoan etxean.

- Gurasoek ikasi egin behar dute nola pentsatu baikortasunez eta nola haserretu sendo eta garbi, asertiboki, seme-alabekin aritzean, horrela, hizkera eraikitzailea gauzatu ahal izateko.

- Ikastetxeetan bitartekaritza zein negoziazio esparruak antola litezke, seme-alabekin dauden liskarrak hobeto kudeatzen ikasi ahal izateko.

## ERANTZUNKIZUN ELKARBANATUA ETA AUTONOMIA

Pertsonen hartu-emanen eredu dugu sendia, lehen eredu hain zuzen ere. Eta, gaur egun oraindik ere, eraldaketa bat jasan arren eta ezberdintasunak ezberdintasun, sendia da balioen erreferentzia nagusia pertsonaren ikasketa prozesuan. Gizabanakoan guztiz itsutako mundu honetan, gizarteratzeko guneak galduta eta instituzioen tokia alboratuta egonik, sendia da norberaren sustrai edo erroen eremu nagusia, gizarteratzekoa, ospakizunak eta jaiak egiteko edo elkarretaratzeko lekua.

Sendi barruan, autonomiak gero eta zeresan handiagoa du. Norberaren erritmoekiko errespetua areagotu egin da, bakoitzarentzat egokitutako txokoak bereizten dira etxean, baita ordutegi, kontsumo zein denbora pasa ezberdinak ere. Autonomiatik norberekeria edo indibidualismora jotzeko arriskua hor dago, ordea, independentzia xede bilakatzeraino, agian. Eskola teresarrak, burujabetzan edo autonomian sinistu arren, elkarren arteko dependentzian jarri du uste ona, sendia zinezko komunitate edo elkarte izango bada.

### Hezkuntza irizpideak edo jarraibideak:

- Sendiekin lan egiten denean, erantzukizuna elkarbanatu ohi dugu, izan ere, bertan txertatzen baititugu zehatz-mehatz gure Teresar hezkuntza egitasmoan ditugun balioak. Sen-

diak gida ditzakegu, beren hezkuntza proiektu berezia eraiki dezaten, bere balio berezituak egikaritzuz. Gainera, gure hezkuntza proiektuaren balioak ezagutu ditzaten baliabideak eskain diezazkiegu sendiei.

- Frustrazioa edo nahigabea onartzen ikasi behar dute haurrek bizitzako egoerei baikorki aurre egin ahal izateko. Heziketa hau jasoz gero, autonomiadun pertsonak bilakatuko baitira, eta nahigabe edo zapuzketa ikasketa modu gisa bizitu ahal izango dute. Horretarako, konstantzia eta ahalegina azpimarratu eta erakutsi beharko zaie. Eta horrela, arrakastaz egingo dute bizitzan aurrera.

- Abilidade edo trebetasunak geureganatzeko gune izan behar du eskolak, pertsonaren autonomia indartuz eta erantzukizuna elkarbanatzeko espiritua azpimarratuz batez ere, gizarteko eremu guztietan: sendian, lanean, lagunartean...

- Sendiak, eskolarekin bat eginik, emozio-adimenaren heziketan zeresana izan behar du hezkuntza osoan zehar. Haur eta lehen hezkuntzako lehen urteak dira bereziki funtsezkoak emozio-adimena hasiera-hasieratik bultzatu eta autonomia barneratzeko.

## BELAUNALDI TARTEA

Egungo bizitza erritmo azkarrak eta gizabana-koarengan zein gizartean gertatzen diren aldaketek areagotu egin dute belaunaldien arteko tartea. Duela gutxi arte, aiton-amon eta biloba artean izan ohi zen soilik tartea, orain, ordea, guraso zein anai-arreba-ahizpen artean ere gertatu ohi da batzuetan. Jendeak "bizi duen garaia", maiz, hain da ezberdina haien artean, ezen ez baita posible urruntze hori gainditzea.

Belaunaldi bakoitzaren ezaugarriak ezberdintasunak lirakeke besteekin erkatzean; ondo kudeatu behar dira ezberdintasunok, loturak eta lotuneak -elkar epaitu gabe- topatzeko pertsonen artean. Ezberdintasunak, besteak beste: harremanak ulertzeko modua (gertuko harremanak eta urrutikoak), IKT Informazio teknologia eta IET Ikaskuntza eta ezagutza teknologiaren zeresana, denbora norberaren zereginen arabera antolatze gaitasuna, arreta jarri beharra ala ez eta ematen zaion balioa, lana ulertzeko modua... hauek batzuk askoren artean eta denak dira belaunaldiak gerturatze-ko eta elkar ulertzeko zailtasun.

Belaunaldien arteko zailtasun hauek ez dira sendi barruan gertatzen bakarrik, hezitzaileen eta ikasleen artean eman ohi dira, eta baita, belaunaldi ezberdinetako hezitzaileen artean ere. Horregatik, biziki garrantzitsua da belaunaldi bakoitzaren interesak zeintzuk diren antzematea, batez ere haur eta gazteen interesak, beraiekin harreman egokiak eratu ahal izateko, ahal den neurrian belaunaldi arteko liskarrak murriztuz.

### Hezkuntza irizpideak edo jarraibideak:

- Gurasoei orientabideak eman, belaunaldi berrien ezaugarri esanguratsuenak zeintzuk diren adieraziz, gurasoak interpretazio baikorra egiteko gai izan daitezen eta ezaugarri horiek abiapuntu hartuta hezkuntza behar berriak ikus ditzaten.

- Pedagogia tresna eta metodologia digitalak eguneratu ditzaten, gurasoei lagundu, beren aberastasun eta abantailak ezagutaraziz, bai informazio iturri gisa, bai loturak edota harremanak finkatzeko edota bai ikasketa proiektu berriak sortzeko.

## DENBORA KALITATEA

Sendia da nagusiki pertsonaren nortasuna euskarritzen duen esparrua, norbanakoaren ezau-garriak taxutuz bertan. Hori dela eta, sendian bertan kalitatezko elkarbizitza uneak bizitzea oso da garrantzitsua, harmoniaz gara dadin pertsona. Aisialdia elkarrekin pasatzeak, elkarriketek, sentimenduak elkarri adierazteak, otoitz egiteak, loturak eta abarrek pertsonaren garapen eta hazkuntza erraztuko dute.

Baina sendi askoren egoerak zaildu egiten dituzte kalitate une horiek. Horregatik, sendia eta eskola arteko lankidetzaren balioa azpimarragarria da, haur zein gaztea garatu edo hazi ahal lorpenak eta beharrak antzemateko. Eskolak ekintza bateratuak sustatu egin beharko lituzke eta ospakizunak, jaiak, ekimenak... gauzatzeko lekuak antolatu. Sendi lotura hauek sortzeak pertsonaren nortasunean hobekuntza ekarriko baitu eta hezkuntza eremuan emango direnez, teresar nortasuna indartuko dute ikastetxeko hezkuntza egitasmoan azaldu bezala.

### Hezkuntza irizpideak edo jarraibideak:

- Gurasoak bilkuretara deitzeko formatu berriak asmatu beharra dago. Informazio teknologia berrieekin bilera mota ezberdinak egitea errazagoa izango da eta tresna lagungarri bilaka daitezke deialdietan.

- Egungo bizimoduaren konplexutasunak -alegia, ikastetxetan eta sendietan antolakuntza arazoak barne- topaketak burutzeko moduak eta tokiak egokitu beharra dakar, beti ere, malgutasunez.

- Hezitzaile, guraso edo ikasle, denok ikasi beharra dugu elkarrekin: nola aberas dezakegun sendian igarotako aisialdi-beta. Sormen edo kreatibitate handiagoa behar dugu, aisialdi edo denbora pasako ekintza ezohikoak irudikatzeko eta enpatia biziberritu behar dugu, elkarbanatutako denbora hori kalitatezkoa izan dadin.



## GURASOEN HEZIKETA

Eskoletan eratorri eta bizimolde ugariko sendiak egonik, sendia eta eskola arteko lankidetzaren inoiz baino beharrezkoagoa dugu. Teresar eskolan hezkuntza modu ugari bilatu eta bideratu izan da, Ikasleen guraso-elkartea dela medio, gurasoen eskola bidez... lanean darraite egun. Gaur egun, eskola teresarraren ezaugarri nagusia den tutoretza-lana bitarteko ezin hobea dugu, haur eta gazteak zein sendiak artatzeko, izan ere, topaketan balio hezitzaileak goraipatzen baititu gehienbat, pertsonen arteko harremanak bezainbat.

Eskolak heziketa bide berriak sortzen ahalegintzen jarraitu behar du gurasoen mesedetan, gerora, gurasoek seme-alaben beharrak ase ditzaten esparru ezberdinetan, espiritualean batik bat. Pertsonaren garapenerako muina da dimentsio espiritual hau. Tutoretzan, aldian aldian, topaketak gauzatuko dira garaiko beharrei erantzutearren, topaketa hauek kalitate-betak izan behar dutelarik nahitaez, heziketa funtzioaren lagungarri.

### Hezkuntza irizpideak edo jarraibideak:

- Ikasleen abilitade edo trebetasunak, arlo pertsonalean, sozialean, sormenean, etikoan zein espiritualean, nola hezi erabakitzerakoan, aldi ezberdinak bereizi behar dira. Bertikalki finkatuko eta gidatuko ditu aldiak tutoreak eta horren arabera antolatuko tutoretzak gurasoekin.

- Gurasoek, irakasleek eta ikasleek, heziketa jaso behar dute gaitasun eta jarrera ezberdinetan: gaitasun emozionala, komunikatzeko iaiotasuna, entzuteko jarrera, pedagogia, negoziaketa gaitasuna, hizkera eraginkorra lortzeko trebetasuna... Horretarako gune egokiena tutoretza dugunez, tutoretza lana gauzatzeko tutoreak dagokion heziketa neurrian jasotzea beharrezkoa du, horrela lortuko baita soilik autonomia handiagoa duten pertsonak hezte, baikorrak, nortasunez hitz egiten dutenak, baieztapen eraginkorrak egiteko gai direnak, gizarte ikuspegi baten aldekoak, sormena dutenak, erantzuleak..

# 3/ ESTRATEGIA LERRROAK

Tesar Eskola Fundazioak, erakundearen hezkuntza proiektu edo egitasmoa egin ondoren, hiru estrategia ildo ezarri ditu, hurrengo urtetan erakundearen norabidea finkatuko dutenak. Ildo hauetatik eratorri da Erakundearen Plan Estrategikoa; hedapen lerroak ditu bere baitan.

L. PEDAGOGIA	Eskolan hezkuntza aldaketa nahi dugu.	Gure ikasteko modua eraldatuko duen pedagogia-aldaketa sustatu nahi dugu.	Norberak bere kabuz ikastea erraztuko duen funtzio aldaketa eragin nahi dugu.	Ordutegian eta eraikinean egitura berriak ezarri nahi ditugu, sormena bultzatuko duen eskola sortuz, ongizatea sustatuko duena eta munduari irekia.
L. LIDERATZGO	Lider baikorrak nahi ditugu, pertsona bakoitzaren pasioa esnaraziko dutenak, lantaldeak bateratuko dituztenak, kreatiboak eta eskolan aldaketa sustatuko dutenak.	Talde bateratuen buruzagitza, emozio-adimena dela bitarteko.	Pertsonen trebetasunak eta sormena bultzatu, beraien hazkuntza pertsonalaren mesedetan.	Eskolaren erabateko aldaketaren buru izan: eskola harreman-gunea, elkargunea eta ikasketa-komunitatea izan dadin.
L. PASTORALTZA	Pastoraltzan aldaketa sustatu nahi dugu ikasketa espiritualaren erraztuz, esperientzia sortaraziz eta teresaren nortasuna indartuz.	Kurrikulumean espiritu-adimena garatu.	Lidergo espiritualaren bila.	Esperientziak sortu, bizitza eta ebanjelioa uztartuz.





# PEDAGOGIA LERRO ESTRATEGIKOA

## HELBURU OROKORRA:

Eskolan hezkuntza aldaketa sustatu nahi dugu.

### 1. LEHEN HELBURU ZEHATZA:

Gure ikasteko modua eraldatuko duen pedagogia aldaketa bultzatu.

IRIZPIDE FINKATZAILEAK	Pedagogia Lerro Estrategikoa
1	Amesten dugun eskolarantz bideratuko gaituen aldaketa sustatu nahi dugu, eta aldaketa horretarako lidergo sendoa behar dugu, baliabidetan eta formazioan inbertsioa eginaz, Erakundearen Hezkuntza Egitasmoko Ikasketa piramidearen ildotik; alegia, adimen anizkuna eta espirituala. Etengabe ikasten diharduten komunitateak eta lankidetzan errotoak. Pertsonaren neurria. Pentsatze kultura. Sormen kultura. Ikasketa eta zerbitzua, gizarte ekintzaileak.
2	Bizitzarako prestutasun eta gaitasuna izango duten ikasleak nahi ditugu eta hori lortzeko hezkuntzaren alde egiten dugu apustu, bakoitzaren ikasketa-erritmoa eta norberaren interesen arabera -biak zainduz-.
3	Ikasleak protagonista bihurtuko dituen irakasle taldea nahi dugu, beti ere, ikasleen adimen mota, sentiberatasuna, sormena eta pentsatzearen garapena kontuan izanik, gizartearen eraldatzaile bihurtzeko.
4	Eskola sortzaile-keratibo eta berritzailean sinesten dugu, hezkuntza komunitateko kide guztien inplikazioa erraztuko duena, lankidetzan baliatuz.
5	Hezkuntzak motibatu eta pasioz erakartzen duen irakaslegodun eskolaren alde egin nahi dugu; aldatu beharra dagoela konbentzitu dauden pertsonak dira, etorkizunera begira eta etorkizuna aurreikusten dakitenak.

EKINTZAK	Pedagogia Lerro Estrategikoa
1	Erakundearen hezkuntza-kronograma eta (Erakundearen Hezkuntza Egitasmoko) EHE ikasketa-ereduen ezarpen-kronograma diseinatu eta gauzatu, ikastetxe bakoitzean zehaztuz: adimen anizkuna eta espirituala. Etengabe ikasten jarduten duten komunitateak eta lankidetzan. Pertsonalizatzea. Pentsatzearen kultura. Sormenaren kultura. Ikasketa eta zerbitzua. Gizarte ekintzaileak.
2	EHEko ikasketa piramidearen ildotik, proiektuak sortu, gauzatu eta neurtu ahal izateko, klaustroetan pentsatzearen kultura zabaldu, topaketak erraztuko dituzten guneak eta tartekak antolatu.
3	Hezkuntza etapa ezberdinetan, pentsatzeko ohitura eta abileziak erabiltzea oina rri hartu duen pedagogia eredu programatu eta gauzatu. Ekintza-gogoeta-ekintza dinamika sistematizatu. Baliabideak ezarri ulermen prozesuak zein helburuak ebaluatzeko eta ez emaitzak eta edukiak soilik.
4	Ordutegia eta ikastetxearen antolakuntza egituratu, irakasle taldeek proiektuak diseinatu ditzaten, beti ere, ikasleen lankidetzan aktiboa barneratuz, gogoeta sustatzeko asmoz eta egikaritutako hezkuntzaren autoebaluazioa bultzatuz, THEari jarraiki.
5	Hizkuntzak ikasteko planak diseinatu, Erakundearen Hezkuntza Egitasmoko lerroei jarraituz, metodologiari dagokionean, eta beti ere, komunikazio zein harreman arloa lehenetsiz.

### 2. HELBURU ZEHATZA:

Norberaren ikasketa bultzatuko duen funtzio aldaketa.

IRIZPIDE FINKATZAILEAK	Pedagogia Lerro Estrategikoa
6	Ikasgelan ikasleei haien lekua eta protagonismoa eman nahi diegu, beren ikasketa propioarekin konprometi daitezela sustatuz -tresna digitalez baliatuta- eta irakaslea, orduan, bidelagun eta gida soil bilakatuko da.
7	Ikasgela ikasketa tokia da. Norberaren dohainak elkarbanatzen dituzte pertsonak bertan eta ikasketa pertsonalizatua edo pertsonaren neurria egindakoa bultzatuko da.
8	Ikasgela irekiak nahi ditugu: irakasle taldeek elkarri lagun diezaioten eta elkarrekin ikas dezagun -gure trebetasunen sostengu izanik eta hobekuntzarako hautabide didaktiko bila arituz-.
9	Norberaren burua jabetzeko eta indartzeko kultura sustatu nahi dugu, norberaren estima azpimarratuko duen kultura, ekimenak eta jarrera ekintzaileak erneko dituzten prozesuak sendotuz.

### 3. HELBURU ZEHATZA:

Antolakuntzaren egituraren ordutegi eta eraikuntze berriak sortu, ongizatearen sormen eskola sortuz, munduari irekia.

	<b>EKINTZAK</b>	<b>Pedagogia Lerro Estrategikoa</b>
6	Ikasgelako astia murriztu behar da pixkanaka, irakaslea eduki emaile soila badu. Eta denbora gehiago eman behar du irakasleak ikasketa prozesuaren bitartekari gisa, "ekintza-gogoeta-ekintza" metodologia erabiliz.	
7	Irakasleei formazio egokia eman norberaren kompetentzietan, errealitatearekin lotura hobetzeko, testuinguru ezberdinak ulertzeko, ikasgelaren kudeaketa hobetzeko, jarrera baikorra bultzatzeko, metodologian sormena handitzeko eta ilusioz zein eraginkortasunez eman dezaten jakintza.	
8	Coaching didaktikoa erabili (arreta jarri, feedback-a jaso, kudeaketaz eta ikasgelako metodologiaz gogoeta egin) ikasgelako praktika edo jardutea hobetzeko, ikastetxe bakoitzean ahal den neurrian sistematizatuz, eta egi bihurtutako proiektu berritzaileetara lotuz.	
9	Sormenaren kultura ezarri ikastetxetan: ikasleei ikerketa proiektuak proposatu, ikasleen dohainak identifikatu, proiektuak eta ikasketa esperientziak diseinatu, ikaslea protagonista izan dadin eta norberaren ezagutzaren eraikitzaile. Nola: galdera bidezko pedagogia erabiliz, sormena garatuz, egunerokotasunari buruzko interesa, ikerketa, erronketan ausardia, ikuspegi kritikoa eta talde lana garatuz.	
10	Irakasleen jardunean diziplina arteko lana eta lankidetzaren orokortu, dokumentazioa zainduz, ikasitakoaren ebidentzia edo frogak jasoz. ikusgai den ikasketa eta ohitura onak elkarbanatzeko moduak zainduz.	

	<b>IRIZPIDE FINKATZAILEAK</b>	<b>Pedagogia Lerro Estrategikoa</b>
10	Ongizate eta zorientasun eskolarekin egiten dugu amets, errealitatearekin lotuta, pertsona librekin, burujabeak eta errukiorrak heziko dituen, heziketaren abiaburua pertsonaren dohain guztiak izanik.	
11	Ordutegi malgutasuna duten eskolekin egiten dugu amets, diziplina edo arlo arteko lana erraztuko dutena eta ikasketa aniztasun eta neurria egina egotetik begiztatuko dutenak.	
12	Ikasleen beharren, irriken eta dohainen arabera daude diseinatuak eskolaguneak eta denbora-tarteak, ikasketa hobetuko duen sormen eskola helburu.	
13	Mundu mailako eskola nahi dugu: ikasgela mundua du eta ikasketak egiazkoa dena du hasiera puntua.	
14	Eskola irekia nahi dugu, beraien egituraren sendiak eta testuingurua onetsiko dituen, bai eragile moduan, bai eskola hezkuntzaren jomuga gisa.	

	<b>EKINTZAK</b>	<b>Pedagogia Lerro Estrategikoa</b>
11	Ikasleei haien errealitatean laguntzeko, coaching pertsonala bultzatu beren burua ezagutu dezaten zirika eginez eta ikasleen iaiotasunak garatuz.	
12	Ordutegiak berrantolatuz, diseinu berritzaileak sartuz malgutasunez, aldi baterakoak, etapa tartekoak pentsatuz, diziplina artekotasuna sustatuz, formala/ez formala, irakasle/ikasle/sendia/testuingurua...ikasleak eta hezitzaileak aukera gehiago izan ditzaten gaiak hautatzeko beren interes eta dohainen arabera.	
13	Eraikuntze gardenak, irekiak, osoak, argiak, funtzio anitzekoak eraiki, topaguneak eta eguneratutako teknologia baliabideak eskainiz bertan... Altzariak berridiseinatu, norberaren ikasketa ahalbidetarako duen moduan, ikasketa mugikorra, ideia berrien sorkuntza, gogoeta, norberaren esperientzia eta esperientzia zientifikoa, emozio eta espiritu esperientzia... sormen kultura bultzatuz ikastetxean.	
14	Ikasketa komunitateak eratu inguruan ditugunekin (sendia, gertuko beste ikastetxeak erakunde eta gizarte-sektoreak). Gure ekimenak ikasketa prozesuetan barnera ditzagun gertuko errealitatean kokatuta egingo dira, partaidetza oinarri izanik.	
15	Sendien alboan egon ahal izateko moduak egituratu eta heziketa gaitasunen inguruan formazioa eman, tutoretza egitasmoaren barruan.	



# LIDERGO LERRO ESTRATEGIKOA

## HELBURU OROKORRA:

Lidergo baikorra nahi dugu, pertsona bakoitzaren grina esnarazteko, talde kreatiboak batzeko eta eskolan eraldaketa ekartzeko.

### 1. HELBURU ZEHATZA:

Adimen emozionala baliatuz baturiko taldeak gidatu.

	IRIZPIDE FINKATZAILEA	Lidergo Lerro Estrategikoa
15	Gure buruzagiek badakite ilusioa pizten eta motibazioa erakartzen, giro atsegina eta partaidetza sendoa sustatuz. Liskarretan bitartekari lanetan aritzen dira eta sor litezkeen arazoak alde aurretik antzematen badakite.	
16	Ideiak, emozioak, jakin-minak... erraz adieraz daitezkeen giroa bultzatu nahi dugu, emozioen eta komunikazioaren kudeaketa ona gauzatu izanagatik.	
17	Beste arretaz entzutea, talde-lana, partehartzaileak diren bilerak eta beste, sustatu nahi ditugu... talde batzuk eratu ahal izateko eta guztionak diren proiektu amankomunetan sartuak.	
18	Gure buruzagiek pertsonen arteko harremanak uste sendokoak eta enpatikoak izan daitezen ahalbideratzen dute.	
19	Bilerak elkarrengandik ikasteko ikasgune bihurtzen ditugu: taldeak bateratu eta proiektuak sortzen dituzte bilerok.	

	EKINTZAK	Lidergo Lerro Estrategikoa
16	Denbora-tarte eta gune formal-informalak, harremanak eta norberaren ezagutza sendotzen duten ekintzetara bideratu, baita jakin-mina, partaidetza eta komunikazioa suspertzen dituztenetara ere.	
17	Emozioen adimenaren heziketa antolatu eta sistematizatu, hezitzaile eta ikasleentzat; erakundearen antolamenduak emozioetatik behar du, egunetik egunera baikorragoa eta pizgarriagoa.	
18	Klaustroak autonomia eta sormena duten lantaldeen inguruan egituratu, antzeko dituzten dohain eta interesen arabera, diseina ditzaten proiektuak.	
19	Bilerak antolatzeke garaian, metodologia eta tresna ezberdinak erabili: entzuteko jarrera eta ziur hitz egitea oratu eta liskarren beldurra gainditu ahal izateko.	
20	Bilerak interes-guneen arabera planifikatu, ordutegi malgutasuna eta metodologia kreatiboak ardatz izanik, lankidetzak sustatzeko eta esperientziak elkarbanatu ahal izateko.	

### 2. HELBURU ZEHATZA:

Dohainak eta sormena indartu, pertsonaren hazkuntzaren mesedetan.

	IRIZPIDE FINKATZAILEA	Lidergo Lerro Estrategikoa
21	Zuzendaritza taldeak zein hezitzaileek etengabeko hazkuntza pertsonala jorra dezaten nahi dugu, erakundeak egituratutako teresaren hezitzailearen gaitasun piramidean agertutako alorretan: adimen espiritual, emozioen hezkuntza, sormena-etorkizun sena, ekintzazaletasuna-jardun profesionala, sarea-harremanak, diseinua-kudeaketa-plangintza konbergentea.	
22	Sendo eta argiro mintzatze diren liderrak sustatu, gidari lana haien gain hartzen dutenak, autonomia eta sormena bultzatu dezaten pertsonengan.	
23	"Coaching didaktikoa" bitarteko, beren gaitasun pertsonalak oratzen dituzten liderrak hazi nahi ditugu; konfiantza giroa sortuko dute eta ondorioz, heziketa elkartean dabilzan kideengan estima goratuko dute.	
24	Proiektu amankomunarekiko pasioa edo grina hedatuko duten liderrak behar ditugu.	
25	Eskola irekia nahi dugu, autoikasketa bultzatu eta heziketa elkarteko kide bakoitzaren trebetasunak garatu asmoz.	

EKINTZAK		Lidergo Lerro Estrategikoa
21	<p>Teresar Hezitzailearen gaitasun piramidean oinarrituta, formazio, hautaketa eta jardunbide ereduak ezarri ditugu:</p> <p>1. Adimen espirituala: teresar izaera eta misioa, fededun konpromisoa, teologia ikuspegia, kristologia, barne mundua...</p> <p>2.- Emozioen adimena: enpatia edo bestearen tokian jartzea, adierazkortasuna, gertutasuna, sentiberatasuna...</p> <p>3.- Etorkezun sena duten sormen-liderrak: ekintzazalea, berritzailea, coach, aldartetsua, dibergentea, irekia, hedabide sozialekin ohitua, ikerlaria, metodologia aktiboak...</p> <p>4.- Profesional lanean ekintzazaletasuna eta gaitasuna: honako eskolak eraiki, dohainen, zaletasunen, buru irekia den, dibergentea den, ekintzazalea, harridura sortzailea, giza-hedabideen, zinearen, bideoa, musika, blogak, sareak, artea, zientzia, irakurzaletasunaren... eskolak.</p> <p>5.- Komunikazio iaotasuna, sareak eta loturak eratu ahal izateko: lankidetzaz bidez gauzatutako lana, besteari entzuteko jarrera, emozioak adierazteko erraztasuna, sendo eta argi mintzatzeko abiltasuna, taldeak kudeatzeko ahalmena...</p> <p>6.- Diseinu, kudeaketa eta planifikazio konbergentea: denbora kudeaketa, bilerak eta proiektuak, antolakuntza aldaketak, ordutegiak, loturak, harremanak eta hitzarmenak, arkitektura aldaketak, finantziarioa, tresna digitalak...</p>	
22	Burujabetza sustatu, buruzagiek erantzukizuna besteen gain laga dezaten, benetako lidergoa gauzatu.	
23	Coachinga -edo aholkularitza- eta bakoitzaren jardueraren ebaluaketa burutu hezitzaile bakoitzarekin, hobekuntza aukerak sortu asmoz jatorriz dakartzaten interes eta motibazioen arabera.	
24	Tailerrak antolatu: hezitzaileen jakintza eta dohainak eskaini, erabili.	
25	Heziketa eta esperientziarako diren ekintzak bultzatu, pertsonen emozioen eta adimenaren hazkuntza sustatu.	
26	Lan ordutegiaren ehunekoren bat jarraian datorrenari esleitu: norberaren ikasketa, ikerketa eta proiektu sorkuntza; norberaren dohainak abiapuntu izanik, hezkuntza proiektuari ekarriko dio onura atzera.	
27	Hezitzaileak bere gaitasun profesionalen portfolioa osa dezan sustatu, eta baita, bizi-gaitasunen portfolioa ere.	

### 3. HELBURU ZEHATZA:

Eskola osoren eraldaketan buru egin, eskola harremanetarako toki, topagune eta ikasketa elkarteak izan dadin.

IRIZPIDE FINKATZAILAK		Lidergo Lerro Estrategikoa
26	Ikasketa komunitate bihurtu nahi dugu, emozionalki batua, non denok aldi berean, irakasle eta ikasle baikaren.	
27	Espainiar estatuko zein munduko ikastetxe guztiok Teresar komunitate hezitzailea osatzen dugu, kurrikulum proiektuak eta ikerketak gauzatzeaz gain, ohitura egokiak zein gizartearentzako proiektu amankomunak elkarbanatu asmoz.	
28	Erabilera anizkoitza duten eta hedabide sozialekin baliabideak dituzten eraikuntzeekin (argiak, alaiak...) egiten dugu amets: autoikasketa nahiz sormena erraztuko dute eta errealitatea eskura izango dute.	
29	Hezitzaileentzako aurreikusitako gune eta aldiak, giro emozional baikorra eragin dezaten nahi dugu.	

EKINTZAK		Lidergo Lerro Estrategikoa
28	Kurrikulum proiektuak garatu irakasle, ikasle, ikastetxeko langile, sendi zein inguruko pertsona nahiz talde guztien, hau da, komunitate kide guztien protagonismo, berrindartze eta erabaki ahalmena dela medio, benetako beharrei erantzunez eta komunitatean eraginez.	
29	Mundu mailako komunitateak sortu eta/edo alegiazkoak, pertsonen zein profesionalen arteko sareak eratuz gainerako ikastetxeekin eta gertuko zein urruneko erakundeekin, guztiok batera garatu ditzaten, kurrikulum proiektuak, elkar trukeak, ekintza esperimentalak, eredu, tresna zein ohitura egokietatik ikasiz, giza-hedabideen -skype blogak, bideoak, sare sozialak- aukera anitzak muturreraino probestuz.	
30	Ikastetxeko eraikuntzeak berregituratzeko finantzaketa plana diseinatu, heziketa elkarteko kide ezberdinekin lankidetzan, Erakundearen Hezkuntza Egitasmoaren helburuak lortzearren.	
31	Ordutegi malguen kontzeptu berria sortu, adin, etapa, eraikuntze... arteko zatiketa hautsiz.	



# PASTORALTZA Lerro Estrategikoa

## HELURU OROKORRA:

Gure pastoraltzan aldaketa nahi dugu, ikasketa espiritual bultzatuko duen aldaketa hain zuzen ere, esperientzia sortzailea eta teresar izeara/nortasuna indartuko duena.

### 1. LEHEN HELBURU ZEHATZA:

Adimen espiritual kurrikulum barruan garatu.

IRIZPIDE FINKATZAILEAK	Lerro Estrategiko Espirituala
30	Proiektu espiritual originalak ditugu amets: ikasleen protagonismoa gorai patuko dutenak norbanakoaren gogoeta azpimarratuz; ikasleekin konektatzeko hizkera ausarta eta egungoa erabiliko duten proiektuak; ikasleentzat, esanguratsuak, deigarriak eta esperientzia sortzaileak direnak.
31	Kurrikulum barruan adimen espiritual gainerako arloekin uztartua dago.
32	Barne bitza hezteko gune eta aldi/denbora-tarte zehatzak antolatuko dituen eskola nahi dugu.
33	Beraiek bizi dutenarekin zerikusia daukaten eta ikasketa espiritual eragingo dieten esperientzietan, ikasleen parte hartzeari bide ematen diogu.
34	Eraldaketa soziala eragingo duen hezkuntzaren aldeko hautua egin dugu, eraldaketa hori gure barne funtzionamendu irizpidetan zein gure inguruan, gertu ala urrun dugun inguruan, izan.

EKINTZAK	Lerro Estrategiko Espirituala
32	Sormena garatzeko diren hezkuntza ekintzak bultzatu eta ikasketa espiritual eragingo duten proiektuak diseinatu, hizkera ausarta erabiliz, ikus-entzunezkoak, hedabideak, musika zein gorputzaren bidez...
33	Hezitzaileek adimen espiritual landuko dute kurrikulum barruan, agiritan jasoko dute eta programazioan islatuko dute.
34	Barneratze espiritualaren plana diseinatu, haren baitan jarraian datozenak bilduz: ikasketa lerro ezberdinak, esperientzia sortzaile diren espazioak, aldi edo denbora-tarteak, teresar otowitzaren lehen urratsak -ordu laurdena- eta hezitzaileentzako formazioa.
35	Ikasketa espiritualean sakontzen lagunduko diguten hezkuntza ekintzak diseinatu.
36	Kurrikulum barruan denbora tarteak sortu: fedea ospatu ahal izateko, eguneratutako hizkera erabiliz eta inguru fisiko egokietan.
37	Pastoraltza jarduerak kurrikulum proiektuen baitan jaso (ulermen-proiektuak, jakintza ezberdinak uztartuko dituzten egitasmoak, PBL... ).

### 2. HELBURU ZEHATZA:

Lidergo espiritual berri baterantz.

IRIZPIDE FINKATZAILEAK	Lerro Estrategiko Espirituala
35	Kudeaketa soila egitetik lidergo espiritual bultzatuko duen eskola nahi dugu, zuzendaritza taldeak eta heziketa komunitate osoak bultzatuko duen lidergo espiritual, hain zuzen ere.
36	Sinesmen edo konbizio sendoak dituzten liderrak nahi ditugu: Ebanjelioan erroturik zertan dihardugun eta nola bizi garen azaltzeko gai dira, batetik, eta bestetik, teresar karisma eta erakundearen aukerak azaltzeko gai.
37	Gure ikasleentzat eta beren sendientzat erreferentzia espiritual izan nahi du gure heziketa komunitateak, bai gaur egun, bai etorkizunean ere -bizi duten horretan erreferentzia espiritual-.
38	Giro emozional egokia eta pertsonaren neurrira sortuko duten liderrak nahi ditugu, sormena susta dezaten eta gure proiektua gozatu eta pasioz bizi dezaten.
39	Sormenguneak diseinatuko dituen eskola nahi dugu, topaketa erraztuko duten guneak: Jainkoarekin, besteekin eta norbere buruarekin topaketa.

	<b>EKINTZAK</b>	<b>Lerro Estrategiko Espirituala</b>
38	Ordutegian, astero, hilero edo hiru hilabete behin, denbora-tarteak bereziki finkatu, lidergo espiritualak sustatuko duten esperientziei toki egiteko: gogoeta egiteko tarteak programatu, gure ekintzen eta gure hezkuntza-proiektuaren zergatia ezagutu zein esperientzia bizitu ahal izateko.	
39	Marketin arloan arreta berezia jarri, gure eskoletan bizi duguna gure arazoietan oinarrituz aurkez dadin, eta beti ere, mezu zuzen, berritzaile eta dibergente baten bidez.	
40	Heziketa komunitateko kideen bidelagun izan, beren hazkuntza espiritual eta/edo pertsonalean.	
41	Pertsona bakoitzaren dohainak deskubritu, gure kurrikulum proiektuen funts bilaka daitezen, eta onuragarriak diren esperientzia espiritualak sor ditzaten.	
42	Teologia, Biblia eta karisma gaietan formazioa eskuratzeko denbora-tarteak erraztu.	

### 3. HELBURU ZEHATZA:

Bizimodua eta Ebanjelioa uztartzeko esperientziak sortarazi.

	<b>IRIZPIDE FINKATZAILEAK</b>	<b>Lerro Estrategiko Espirituala</b>
40	Gure ikasleek duten bizimoduan jarria dagoen eta lotura duen eskola nahi dugu. Norbere buruarekin, Jainkoarekin eta besteekin topaketa-esperientziak sustatuko dituen eskola, eta gainera, sormena, gozamina eta grina biztuko dituena.	
41	Espiritualitatea bizituko duen eskola nahi dugu, hots, estetika diseinuak, musikak eta gorputz hizkerak ondorengoia susper dezaten komunitatean: norberaren bizimodua eta esperientzia espiritualak uztartzea.	
42	Teresar bizimoldea eta espiritualitateak bat egingo duten eskola dugu amets.	
43	Eskola, komunitate bihurtu nahi dugu, inguruarekin hartu-emanen ikasten duen komunitatea, garapenerako hezten duena eta gizarte eraldaketa eragingo duten ekintzak abian jartzeko bere burua prestatzen duena.	
44	Gure eskolan, elkarri lagundu nahi diogu espiritualki hazten, komunitate hezitzaile moduan.	

	<b>EKINTZAK</b>	<b>Lerro Estrategiko Espirituala</b>
43	Paradigma berriak kokaturiko ikasketa espiritualak gauza dadin proposamenak birdiseinatuko dituzten taldeak eratu.	
44	Planteamendu berria egin gure ospakizun zein pastoraltzako ekintzak antolatzerakoan -espazio eta baliabide egokiak erabili-. Neuroikasketaren aurrerakuntzak hartu kontuan.	
45	Teresar ibilbidea abiapuntu izanik, ikasketa espiritualaren etapa ezberdinak ezarri.	
46	Inguruaren beharretatik abiatuz, eraldaketaren esperientzia ekarriko duten proiektuak diseinatu (Design for change, ikasketa eta zerbitzua). Herri mailako erakundeekin (irabazi asmo gabeko elkarteekin, solidaritza elkarteekin...) lankidetzak hitzarmenak edo sareak sortu, gure ikasketa komunitatea zabaldu ahal izateko. Bolondres jardutearen esperientzia sustatu ikasleen artean beren eskola-bizitzan zehar. Garapena sustatuko duen lankidetzak edo kooperazio proiektuak bultzatu, FundEO bitartez.	
47	Design thinking delakoaren bidez, eraikingune berriak diseinatu (gelak, kapilak, otoitz-lekuak...) sormen espiritualak pizteko, barne adierazpena errazteko, topaketak ahalbideratzeko eta partaidetza bultzatzeko.	





fundación

**escuela teresiana**